



Bizkaiko
Iraunkortasunerako
Hezkuntzako
Ekintza-Egitasmoa
2020



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

© Bizkaiko Foru Aldundia
Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza-Egitasmoa 2020

www.bizkaia21.eus

Zuzendaritza eta edizioa: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

Diseinu eta Inprimatzea: Grafilur

ISBN: 978-84-7752-577-6

Lege Gordailua: BI-1225-2015

Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza-Egitasmoa 2020

Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 128. zenbakian publikatutako onarpena. 2015eko uztailak 7, asteartea



Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza-Egitasmoa 2020



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Aurkezpena

Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa 2020, Bizkaia 21 Egitasmoa - Bizkaiko Foru Aldundiaren Estrategia Garapen Iraunkorrerako programaren barruko ekimen nagusienetako bat da, eta Lurraldeko ingurumenaren kalitatea hobetzeko, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sortzeko, bizkaitarren bizi-baldintzak hobetzeko eta, era berean, Bizkaiak gordetzen duen kultura-ondare aberatsa ezagutzera emateko, erakunde honetan garatzen ari garen plan estrategikoen eta sektorialen osagarri da.

Dokumentu honek lortu nahi den iraunkortasun horretara iristeko aukera emango digu, funtsezkoak diren beste arlo batzuetan –besteak beste, gobernantza, erakundeen arteko eta publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak eta ezagutza eta gaikuntza areagotzeko lana– ezartzen ari garen beste hobekuntzekin batera.

Ezagutzarena eta gaikuntzarena da, hain zuzen ere, Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoaren ardatza; Bizkaiko Foru Aldundi osoak prestatu duen proposamen integral bat da, non ondoko konpromisoak hartu diren:

- *iraunkortasunaren kontzeptua zabaldu eta sustatzea,*
- *gure ondare naturala eta kulturala ezagutaraztea,*
- *jokamolde egokietarako tresnak zabaltzea eta horrela gure aztarna ekologikoa gutxitzea,*
- *dibertsitatearen alde eta ongizate integralean oinarrituta gizarte-eredu bidezkoa eta inklusiboa transmititzea.*

Hala, programa hau Bizkaiko Lurralde Historikoan iraunkortasuna sustatzeko gida bat da. Eta guztiok egin ahal dugu gure ekarpena.

Elena Unzueta Torre
Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatua

Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza-Egitasmoa 2020

AURKIBIDEA

1	Sarrera	9
2	Aurrekariak	11
	- Iraunkortasunerako Hezkuntza	11
	- Zeregin berriak: Gaur ikasiz, etorkizuna iraunkorra	12
3	Non gaude? Esparru estrategikoa definituz	15
	- Iraunkortasunerako Hezkuntzan eragiten duten planak eta estrategiak	15
	- Bizkaia 21 Egitasmoa: bilakaera eta ondorioak	16
	- IHEE 2007-2014: Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Estrategia Orokorra . . .	19
4	Diseinu eta onarpen-prozesua	21
5	2015-2020 Ekintza-egitasmoa	23
	- Egitasmoaren printzipioak	23
	- Egitasmoaren garapena	24
6	Segimendua eta ebaluazioa	29
1. Eranskina	Konpromisoen, lerro estrategikoen eta helburu operatiboen laburpena	33
2. Eranskina	Ekimen berritzaileen fitxak	37
3. Eranskina	Ekimen berritzaileen laburpena, Sail sustatzailearen arabera	75
4. Eranskina	Iraunkortasunerako Hezkuntzan eragiten duten planak eta estrategiak	79
5. Eranskina	Bizkaiko Foru Aldundiak martxan dituen proiektuak eta ekintzak, Sail sustatzailearen arabera	87
6. Eranskina	Bizkaiko Foru Aldundiak martxan dituen proiektuak eta ekintzak, lerro estrategikoen arabera.	95



Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) denbora darama iraunkortasunaren kontzeptua ezagutarazten eta barneratzen. Iraunkortasunaren alderdi kultural, ekonomiko eta sozialei heldutasuna aitortu eta garrantzia emateko jarduera horrek, beste alderdi nabarmen batekin batera (gobernantza), aurrera egitea ahalbidetu du Bizkaian garapen iraunkorra emateko prozesurantz.

2005ean onartu zen **Bizkaia 21 Egitasmoa** Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromisoaren adierazle esanguratsua da, iraunkortasunaren gaiari buruzko printzipioak, helburuak eta jardunbide zehatzak foru-erakunde osora eramateko xedea duena. Aldi berean, garapen iraunkorrerako Aldundiaren estrategia horrek, **Bizkaia 21 (2011-2016) Egitasmoaren** bidez eguneratu zenak, iraunkortasunaren kultura Bizkaiko Lurralde Historikora hedatzeko bokazioa dauka, inplikazio eta parte-hartze zabalaren eskutik hainbat jardunbide egokitan gorpuztu dadin.

Bizkaia 21 (2005-2010) Egitasmoaren ekintza mugari bat honako hau onartzea izan zen: **Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Bizkaiko Ekintza Egitasmoa (2007-2014)**. Horrek bat egin zuen Nazio Batuek sustatu zuten **Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadarekin**.

Iraunkortasunean Oinarritutako Bizkaiko Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoak lorpen handiak ekarri ditu

Aldundiko barne-eragileak informatu, sentsibilizatu eta inplikatzeko zereginetan. Hala ere, batez ere azpimarratzekoak dira gizarteari iraunkortasunerako hezkuntza-baliabideak zabaltzerako eta igortzerako orduan erdietsitako helburuak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan asko lagunduta. **Bizkaia 21 ataria** (www.bizkaia21.eus) aipatutako etapa horretan sortutako eta ezagutzera emandako eduki ugariaren euskarria da, baita egindako ahaleginen, kalitatearen eta sormenaren adibide garbia ere.

Alabaina, aurrerapauso bat eman nahi izan da. Horretarako, **Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza-Egitasmoak (2020)** Lurralde Historikoaren errealitatea osatzen duten eragile guztien jarduera kontzientea eta positiboa bilatzen du. Hori dela eta, informazioa ezagutarazten eta sentsibilizazioari buruz hezitzen zuen aurreko ikuspegitik abiatuta eta jardunbide-eredu berriaren eskutik, aurrera begirako urratsak eman nahi dira ekintzarako hezkuntza kontzeptu baterantz, hau da, ekintzarako konpromisorantz. Zentzu horretan, foru-ekintzaren ikuspegi globaletik diseinatu eta taxutu den programa horrek honako asmo hau dauka: Aldundiaren barruan zein Bizkaiko gizarte aberatsean, aktibatu eta gauzatu daitetzela oparotasun eta ongizate gehiago izango duen etorkizunera norbanako, kolektibo edota erakunde gisa eramango gaituzten proposamenak, programak, proiektuak eta jardunbideak.



2.1. Iraunkortasunerako Hezkuntza

XX. mendeko 90en hasieran, gure mundu honetako biztanleak 6.000 milioi ginelarik eta baliabide naturalak, aldiz, mugatuak, agerikoa zen zenbateraino zegoen andeaturik planetaren ingurumena, eta premiazkoa zela gizakiok eta gizarteek bestelako jokamoldeak hartzea iraunkortasunaren onerako. Prozesua bizkortzeko, Ingurumen eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (UNCED) antolatu zen Rio de Janeiro. "Rio 92" izenez ezagutuko zen ekimen hartaz geroztik, "iraunkortasuna" eta "garapen iraunkorra" ohiko terminoak dira.

Harrezkerostik zabalduz joan da Iraunkortasunerako Hezkuntzaren kontzeptua (IH), nazioarteak gero eta barneratuago baitu IHa funtsezko elementua dela lortu nahi bada hezkuntza eta ikaskuntza integratzaileak eta kalitatezkoak izatea eta garapen iraunkorraren motor gisa jokatzeko. Hala jasotzen da, hain zuzen ere, hainbat gobernuarteko itunetan, besteak beste klima-aldaketari buruzkoan (Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Markoaren 6. artikulua eta Dohako lan-programa), dibertsitate biologikoari buruzkoan (Dibertsitate Biologikorako Nazio Batuen Hitzarmenaren 13. artikulua eta lan-egitarauak eta Hitzarmenari lotutako erabakiak), hondamen-arriskua murriztekoan (Hyogoko Ekintza Esparrua 2005-2015), kontsumo eta ekoizpen iraunkorretarakoan (Kontsumo eta Ekoizpen Iraunkorrerako Ekintzen Hamar Urteko Programa [2012-2021]: Bizimodu eta Hezkuntza Iraunkorren Programa) eta haurren eskubideei buruzkoan (Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena: 24.[2], 28. eta 29. artikulua). Esandakoaren erakusgarri, IHa ere helburu bat da Denontzako Hezkuntzari buruzko 2014ko Munduko Bilerak onartutako Muskat-eko Hitzarmenaren eginkizunen artean, eta onartua izan da, orobat, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Lan Talde Irekiak Garapen Iraunkorrari begira egindako Helburuen proposamenean.

Deskribatu dugun prozesuan, IHa tresna bat da ezagutza, trebetasunak, ikusmoldeak eta balioak garatzeko, eta horiei esker, adin guztietako pertsonak gai izan daitezzen beren erantzukizunen jabe egiteko, etorkizun

iraunkor bat eraikitzeko eta hartaz gozatzeko, gizarte bidezkoago, ekologiko eta kultur aldetik askotarikoetan eta, ekonomiari dagokionez, eredu dinamikoago eta ingurumenarekiko arduratsuago batean.

Hezkuntza formalaz gain, Iraunkortasunerako Hezkuntzaren parte dira hezkuntza ez-formala eta bizi bitarteko ikaskuntza ere, ume-umetatik zahartzarora arte. Bost dira IHaren ikasbide nagusiak kalitateko hezkuntzara iristeko:

- jakiten ikastea
- izaten ikastea
- elkarbizitzen ikastea
- egiten ikastea
- nork bere burua eta gizartea bera eraldatzen ikastea

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzak lan-alor ditu, beraz, pentsamolde kritikoa sustatzea eta norbanakoa etorkizunari buruzko hipotesiak pentsatzeko, sistema konplexuak ulertzeko eta erabakiak partaidetzaren bitartez eta elkarlanean hartzeko gaitzea. Baina horrez gain, xede du ekintzarako parte hartzea ere, egoeraren jakitun izatea ez delako nahikoa, berez, aldaketak gertarazteko. Sentsibilizatzear eta ezagutzak eskaintzear harago, konpromisoa eta esku hartzea IHrako programen funtsezko alderdiak dira, ekinbide emankorrak direlako ez bakarrik hezteko, baita eraldaketa sustatzeko ere baizik: gure ikaspenak batik bat parte-hartze aktiboaren eta horri lotutako bizipenen emaitza dira, gizakiaren esperientzia praktikoak haren bizitza pertsona zein profesionalari gehitzen zaizkiolako (hezkuntzaren ikuskera konstruktibista).

Ikaskuntza-eredu horretan, protagonista ikasten duena da, eta tresna berritzaileak jarri behar zaizkio eskura, maiz teknologia berriei batera, bere ezagutzak eta egiteko gaitasuna handitzen dituen neurrian autonomia, jakintza eta beregaintasuna ere irabaz ditzan.

Zerikusia du, bestalde, garapen iraunkorrerako egitasmo orokorrekin, esate baterako Rio+20 Konferentziaren amaierako adierazpenean jasotakoarekin, berau ere globala elkarrekin lotutako gaietara heltzen dielako, hala nola pobrezia gutxitzea, aldaketa klimatikoa, hon-

damen-arriskuak murriztea, biodibertsitatea eta kontsumo eta ekoizpen arduratsuak. Tokian tokiko ezagarriei adi, kulturen aniztasuna errespetatzen du.

Baina IHak gero eta garrantzi handiagoa hartu duen arren, badago oraindik zereginik hezkuntzaren eta ikaskuntzaren alor guztietaraino irits dadin, besteak beste esparru horiek baliabide didaktikoez hornitzea, hezkuntza-prozesuak ikaskuntza-modu berritzaile bat sustatu behar baitu, aurreikusteko kapaza eta parte-hartzearen bultzatzailea, ikasleak ez duelako soilik ulertu behar, ulertutakoaren eragile ere izan baizik.

IHak, gainera, zerikusia du herri bakoitzeko aukera eta arazoekin eta bertako baliabideak erabiltzeko erarekin, toki eta eskualde mailako garapenarekin, beraz. Eta azken hori izanik, hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketa-esparrua, foru-administrazio honek, garapen iraunkorren oinarritutako politikak sortu behar diren jakitun, berrikusi eta eguneratu egin du Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa, eta 2015etik 2020ra bitarteko aldiari garatu dadin egokitu.

2.2. Zeregin berriak: Gaur ikasiz, etorkizuna iraunkorra

Nazio Batuen ekimenez, 2005etik 2014rako aldia Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada izan da, muinezko ideia gisa harturik hezkuntza tresna paregabea dela gizarte iraunkorrak eraikitzeko behar diren balioak, ezaupideak, gaitasunak eta ahalmenak lortu nahi baditugu.

Hamarraldia amaitzeko, 2014ko azaroaren 10etik 12ra Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari (IH) buruzko Munduko Konferentzia egin zen Aichi-Nagoyan (Japonia), UNESCOk bultzatua eta "Gaur ikasiz, etorkizuna iraunkorra" goiburua aukeraturik. Hamarraldian izandako aurrerapenen eta esperientzien berri emateaz gain, Konferentzian IHaren hurrengo pausua izango denari ekin zitzaion: Ekintza Plan Globala.

Hamarraldiaz ateratako ondorioen artetik azpimarratzekoa da, bereziki, IHa estatuen zein nazioartearen agendetan sartu dela, aurrerapausoak izan direla araudietan, gero eta hobeto ulertzen dela IHaren kontzeptua eta ugari sortu diren jokamolde egokiak.

Gainera, Hamarraldian zehar hezkuntza-sistemek gero eta ardura handiagoa erakutsi dute iraunkortasuna lor-

tzeko ahaleginetan, ikasleak datozen erronkei eusteko trebatuz. Izan ere, IHak irispidea erraztu die teknologia berrien bidezko heziketa interaktibora, haien pentsaera kritikoa akuilatu du eta, oro har, bikain txartatu da hezkuntza arautuan. Dena den, egia bada ere IHa gero eta barneratuago dagoela hezkuntza formalean zein ez-formalean, lana ez da amaitu alor horretan. Antzera gertatzen da lanbide-heziketan eta ikasketa teknikoan, dagoeneko gauzak egiten hasi den arren gehiago garatu behar baita egitasmoa.

Lidergo politikoa funtsezkoa izan da bidea urratzeko, baina beharrezkoa ikusten da erakundeek IHRako egitasmo guztiak bateratu ditzaten, ikuspegi koherente batekin jokatzeko.

Alderdi interesdunen arteko itunek ikusgai jarri dituzte lankidetzaren onurak. Horren adibide dira unibertsitateen arteko sinergiak, eta, emaitzetako bat, nazioarte mailan eratu den elkarlan-plataforma.

Toki mailan, hartutako neurriak funtsezkoak izan dira; ildo horretatik, tokiko konpromisoen kopuruak gora egin du, eta agerian geratu da tinkoago lan egin beharra.

Ikusi da, halaber, alderdi interesdun guztiek esku hartu beharko luketela, elkarlanean eta eraldaketa helburu, ezaupideak sortzeko, zabaltzeko eta erabiltzeko ahaleginetan. Hala dagokie egitea, bereziki, hezkuntza-ministerioei, IHan ardura duten gainerako ministerioei, goi-hezkuntzako erakundeei eta bestelako ezagutza-komunitateei. Horrekin bat, lan egin behar da berrikuntzaren sustapenak sektoreen eta jakintza-arloen arteko mugak zeharkatu dituzten, garapen iraunkorren aldeko erabakiak eta ahalmenak erraztuz zientzien, politiken, kudeaketaren eta IHaren arteko interfazeetan eta arreta eta begirune handiz tratatuz gazteen parte-hartzea, haiek direlako interesdun nagusiak.

Gobernuen rolari dagokionez, esan beharra dago UNESCOren kide diren estatuek ahalegin handiagoak egin beharko lituzketela, era honetan:

- a. Hezkuntzaren euskarri diren helburuak eta balioak berraztertu, ea zenbateraino laguntzen duten hezkuntza-politikak eta ikasketa-programek IHaren helburuak betetzen; IHa sendoago txertatu hezkuntzan, prestakuntzan eta garapen iraunkorrerako politiketan, aparteko garrantzia emanez sistema osoari erreparatzen dioten ikuspegi orokorreari, elkarlanari eta alderdi interesatuen elkartei, kontuan harturik haietan bat egiten dutela hezkuntzaren alorreko ordezkariak, sektore pribatukoak, gizarte zibilekoak eta, oro

har, garapen iraunkorraren inguruan diharduten eragileen ordezkariak; eta irakasleen zein beste-lako hezitzaileen prestakuntza eta garapen profesionala bermatu, IHa behar bezala integraturik gera dadin hezkuntzan eta ikaskuntzan.

- b. IHa agerrarazi eta indartu bai 2015 ondoko agendan baita haren segimendu-prozesuetan ere, modu horretan bermatuz IHak hezkuntzaren helburu izaten jarraituko duela eta, horrez gain, zehar-gai bat ere izango dela Garapen Iraunkorraren Helburuen artean.



Zailtasun handiak daude oraindik IHRako politikak eta programak garatzeko orduan: aurreikusi bezala burutzen diren IHRako jarduerak epe finkoa izaten dute, eta aurrekontu mugatua; IHaren alorrean politikak eta praktikak ez datoz bat beharko luketen neurrian; IHa ez dago oraindik guztiz txertaturik hezkuntzako eta garapen iraunkorrerako programa nagusietan. Bestalde, garapen iraunkorrek dituen arazoak areagotu egin dira Hamarraldiaren hasieratik hona, eta azaleratu dira beste betekizun batzuk, adibidez munduko herritartasuna bultzatu beharra aniztasuna ardatz harturik. Beharrezkoa da, hartara, IHaren aldeko jarduerak indartzea.

Arrazoi horiek guztiek agerian jarri dute beharrezkoa dela premiazko ekintzei planteatzea, lanean jarraitzea eta ahalegin handiagoak egitea, IHaren Hamarraldiari segida emango dion IHRako *Ekintza Programa Global* batekin: GAP ingelesezko sigletan (Global Action Programme). Asmoa da Programa beste ekarpen bat izan dadin 2015 ondoko Agendarako, kasu honetan Iraunkortasunerako Iragapenari begira, eta helburu du IHRako neurriak planteatzea eta indartzea hezkuntzaren, prestakuntzaren eta ikaskuntzaren maila eta alor guztietan eta, horrela, garapen iraunkorrerako aurre-rapausoak azkartzea. Hamarraldian lanerako euskarri finkoak ezarri ziren bezalaxe, orain GAParen lehen bosturtekoan jarduerak sortu eta ugariagotu behar dira, IHa elementu erabakigarria izan dadin gizartearen erresistentziaren, erresilientziaren eta iraunkortasunaren handitzean.

IHaren ahalmena guztiz eraginkorra izan dadin, Ekintza Programa Globalak (GAP) bost jarduera-alor zehatz lehenetsiko ditu, Hamarraldian bostak funtsezkoak izan direlako IHa sustatzeko:

- IHa nazioarteko zein nazio mailako politiken osagai bihurtzea hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta garapen iraunkorraren alorrei dago-kienez. Politika horiek koherenteak izango dira, parte-hartze prozesuetan oinarrituak (gizarte zibila, sektore pribatua, unibertsitatea eta tokiko komunitateak) eta erakundeen arteko koordinazioaren fruitu.
- Iraunkortasunerako jokamoldeak hezkuntzaren eta gaikuntzaren alorretara eramatea erakunde guztiak barne hatzen dituzten estrategien bitartez. Irakaskuntzaren edukiak eta metodologia birbideratzeaz gain, beharrezkoa da campusak eta instalazioak eurak kudeatzeko erak bat etor daitezen garapen iraunkorrarekin, eta erakundeak berak elkarlanean jardun dezan garapen iraunkorrean interesa duten komunitateko beste alderdiekin.
- Hezitzaileen, prestatzaileen eta gainerako aldaketa-eragileen gaitasuna indartzea beren lanarekin IHaren ikaskuntza erraztu dezaten, batik bat garapen iraunkorrarekin zerikusia duten gaietan eta beharrezkoak diren metodologia pedagogikoen aldetik. Eragileen multzo horretan daude, eskolaurretik graduondora bitarteko irakasleez gain, sektore publikoko funtzionarioak, enpresa-arloko jarduleak, hedabideetako eta garapen-alorreko profesionalak eta garapen iraunkorrarekin lotutako sektoreetan edo alor tematikoetan diharduten adituak ere.
- IHa baliatuz, gazteak bultzatzea garapen iraunkorraren aldeko eragile gisa, gero eta neurri handiagoan gazteak direlako, hain zuzen ere, hezkuntza-prozesuaren motorra, bereziki hezkuntza ez-formalean eta informalean. Hala izango bada, IHaren gaietan baliabide elektronikoen bidezko ikaskuntza sustatu beharko da, eta gazteei parte hartzeko ahalmenak eskaini, aldaketaren eragile bihurtzeko garapen iraunkorrerako prozesuetan mundu, nazio nahiz toki mailan.
- Toki mailan garapen iraunkorrerako soluzioen bilaketa bizkortzea IHaren bitartez, alderdi interesdunen arteko eztabaida eta lankidetzak bultzatuz. Maiz, garapen iraunkorreko arazoaren soluzio eraginkorrek eta berritzaileak toki-esparrutik datozkigu.

3



Non gaude?

Esparru estrategikoa definituz

3.1. Iraunkortasunerako Hezkuntzan eragiten duten planak eta estrategiak

Dokumentu hau biltzen duen esparru estrategikoaren nondik norakoa zehazteko, jatorri desberdinetako Planak eta Estrategiak aztertu dira: Europakoak, estatutu mailakoak, autonomia erkidegokoak eta Lurralde Historikokoak bertakoak. Haietatik zertuz joan da zertan gauzatuko den **Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa 2020** (IHE 2020), zer helburu izango dituen eta xede horiek zer ekimen berritzailearen bitartez mamituko diren.

Europako Batzordeari bagagozkio, zehaztu du dokumentu batean (“Batzordearen ondorioak hezkuntzari eta prestakuntzari **2020 Estrategia** aplikatzeko orduan dagokien zereginari buruz”) zein izango diren aurrerantzean lehentasunak Iraunkortasunerako Hezkuntzaren inguruko politikak garatzerakoan. Azpimarratzen da dokumentu horretan hazkunde adimentsua deritzona, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomiaren bitartez gauzatzen den eredu bat. Hazkunde mota horretan ageri zaigu, hain zuzen ere, IHEREKIKO lotura zuzena, ezagutza eta berrikuntza berresten baititu etorkizuneko hazkundearen eragiletzat. Zehatzago azterturik, hizpide dugun estrategiak berriz jotzen du beharrezkotzat ikaskuntza ez-formalaren eta informalaren rola aitortzea, ezagutzaren kooperazioa bultzatzea eta hezkuntzaren, enpresaren, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko lokarriak sendotzea. Lehentasunezko egitekotzat dauzka, halaber, herritarrek ikasteko behar diren oinarrizko trebetasunetara irispidea eta motibazioa izatea, zehar-gaitasunen garapena sustatzea —haien artean gaurko teknologia digitalak erabiltzeko gaitasunak—, garapen iraunkorra eta herritarren ekimena bultzatzea eta sormenaren, berrikuntzaren eta enpresa-senaren alde jokatzeko.

Gurera etorrita, **Euskadiko IV. Ingurumen Esparru Programaren** helburu estrategikoak dira kapital naturala babestea, lehengoratzeko eta kontserbatzea, Euskadin ekonomia lehiakorra, berritzailea, karbonoan urria eta baliabideen erabilera eraginkorra lortzea,

herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea, udalerrien iraunkortasuna bultzatzea, politiken koherentzia eta sektore publikoaren eta pribatuaren erantzunkidetasuna ziurtatzea eta gure herrian ingurumenarekiko ardura erakusten duten jokaerak Euskadiren irudi internazionalaren alde baliatzea. Ekintzarako plan orokor horretatik IHa hartuko dugu ildo nagusitzat, Euskadiko Ingurumen Estrategian mahaigaineratzen diren erronka berriak aztertuz, era horretan jakin ahalko baitugu garapen iraunkorraren alorreko zer desafiori egin nahi dien aurre estrategiak.

Lurralde Historikoan **Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa 2020** izenekoak zeharkakotasun-tresna bat izan nahi du foru-erakundeak berak eta beste toki-administrazioek eta -eragileek proposatzen dituzten programa, estrategia eta planetan, horien guztien elementu lotzaile gisa jokatuko.

PLANAK ETA ESTRATEGIAK
EUROPAN
<ul style="list-style-type: none"> • Europa 2020 Estrategia
EUSKADIN
<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumeneko Esparru Programa 2020 • Euskadiko Energia Estrategia 2020 • Euskadiko Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailea 2020 • Geodibertsitatearen Estrategia 2020 • Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2012-2022 • Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Plana 2012-2016 • Euskadiko Osasun Plana 2013-2020 • Garapen Iraunkorraren arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaitasun eta Hezkuntza Plana Urdaibaiko Biosfera Erreserban 2015-2025

LURRALDE HISTORIKOAN

- Bizkaia 21 Egitasmoa 2011-2016
- Bizkairako Energia Iraunkorreko Estrategia 2020
- Bizkaiko Biodibertsitatea Babestu, Hobetu eta Kudeatzeko Estrategia
- Soinu Kalitatea Hobetzeko Bizkaiko Estrategia 2013-2017
- Bizikleta Plan Nagusia. Bizkaia Bizikletaz 2003-2016
- Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Plana 2010-2016
- Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana
- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana 2012-2015
- Gaztedi Bizkaia proiektua
- Bizkaian Zahartze Aktiboa Sustatzeko Ekintza Plana
- Ekonomia Sustatzeko Ardatz Estrategikoak 2012-2015
- Bizkaiko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2013-2015

3.2.

Bizkaia 21 Egitasmoa: bilakaera eta ondorioak

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2005ean onartuta, Bizkaia 21 Egitasmoa garapen iraunkorrerako foru-estrategia bat zen, 2010era arte luzatuko zena, eta haren bidez lortu beharreko helburua, arlokako politikak hobeto elkarlotzea eta koordinatzea, Aldundiak iraunkortasunaren alorrean egiten zuen gobernantzanari eta zeramatzan zeharkako gaiei bestelakoak ere gehitzen baitzitzaizkion ingurumenaren, kulturaren, ekonomiaren zein gizartearen esparruetatik. 2005-2010 Programa erreferentzia izan da aurrerago aztertuko dugun beste hau garatzeko: Iraunkortasunerako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa 2007-2014.



Garapen iraunkorrerako bidea prozesu bat den aldetik, beharrezkoa izan zen Bizkaia 21 Egitasmoa egotzeraren aldaketetara moldatzea, era horretan bat etor zedin garai berriekin eta orduan Europatik zetozen politika berriekin. Egokitze-lan horretatik sortu zen, hain justu, 2011-2016 aldirako Bizkaia 21 Programa, 2011ko maiatzean Gobernu Kontseiluak onartua eta lehen dokumentuaren printzipioak bere egin zituena, erreferentziazko elementu iritzi zitzaielako, eta baliagarriak handik aurrerakoan ere bai:

1. **PRINTZIPIOA** – Ingurumenaren, kulturaren, ekonomiaren eta gizartearen esparruekin zerikusia duten gaiei ere erreparatzea erabakiak hartzerakoan.
2. **PRINTZIPIOA** – Ekitatea belaunaldien artean.
3. **PRINTZIPIOA** – Oinarrizko premiei erantzutea, pobrezia aurka borrokatzea eta belaunaldien arteko ekitatearen alde egitea.
4. **PRINTZIPIOA** – Bidezko gobernantza eta parte-hartzea.
5. **PRINTZIPIOA** – Kultur nortasuna sustatzea.
6. **PRINTZIPIOA** – Zeharkakotasuna erabakiak hartzeko orduan.

Sei printzipioetatik, Aalborg+10 Gutuneko 10 konpromisoen ildotik ondorioztatuak eurak, 34 lerro estrategiko eta horietan oinarritutako 93 helburu zehatz sortu ziren, batzuk Bizkaiko herritarren heziketari, sentsibilizazioari eta kontzientziazioari zuzenduak, Foru Aldundiko sail eta egitura guztiak inplikatzear gain.

Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa 2020 delakoaren garapenean aurrera egiteko asmoz, 2011-2016rako Bizkaia 21 Egitasmoan proposatutako lerroak, helburuak eta ekintzak azertu ziren, baina hezkuntzaren alderdietara mugatuta, hezkuntza hizpide dugun gaia izateagatik (ikus azpiko taula). Azterketatik ondorioztatutakoaren arabera, Egitasmoa artean indarrean zegoelarik aurreikusitako ekintza guztietatik batzuk baino ez zeuden hasi gabe –buruzapen mailak kontsultagai daude www.bizkaia21.eus webean–. Baloratu zen, hortaz, ekin gabeko ekintzok Ekintza Egitasmo honen barruan sartzeko aukera.


Koadro honetan ikusten da nola dauden erlazioaturik Bizkaia 21 Egitasmoaren konpromisoak, lerro estrategikoak eta helburuak iraunkortasunerako hezkuntzaren zenbait alderdirekin:

BIZKAIA 21 EGITASMOA

KONPROMISOA	LERRO ESTRATEGIKOA	HELBURUA
Gobernantza moduak	INSTITUZIOEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA BULTZATZEA HAINBAT MAILATAN	Zeharkakotasuna antolakuntzarako elementu gisa erabiltzea foru-politiken muina eta koherentzia hobetzeko.
	ZERBITZU PUBLIKOEN SISTEMA IRAUNKOR BAT FINKATZEA	Herritarrentzako arreta hobetzeko, desberdintasunak eragotziko dituen prestazio- eta zerbitzu-sistema bat ezartzea, eraginkorra, eskuragarria, ulergarria eta edonola ere erabiltzaileei zuzendua. Ekitatea eta iraunkortasuna.
Iraunkortasuneranzko kudeaketa	IRAUNKORTASUNA OINARRI DUEN AURRERAKUNTZA EREDU BAT GARATZEA	Ingurumenean eta gizartean albo-kosturik eragiten ez duen hazkunde ekonomikoa.
	IRAUNKORTASUNA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOETARA IRITSARAZTEA	Iraunkortasunaren adierazleak erabiltzea iraunkortasuneranzko ibilbidea aztertzeke eta ebaluatzeke. Administrazioek Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainan parte har dezaten bultzatzea.
	IRAUNKORTASUNA BIZKAIKO HEZKUNTZA SEKTORERA HELARAZTEA	Eskoletako 21 Agenda bultzatzea.
		Iraunkortasunaren alorrean dauden esperientzien trukea bultzatzea hezkuntza-sektorean.
		Bizkaiko Foru Aldundiaren PAES Programa (Iraunkortasunerako Hezkuntzarako Ekintza Programa) eguneratu, zabaldu eta aplikatu dadin lan egitea.
	GIZARTE OSOAK IRAUNKORTASUNAREN BEHARRA BARNERATU DEZAN LORTZEA	Herritarrak garapen iraunkorraren alde esku hartzearen garrantziaz ohartaraztea. Iraunkortasun-prozesuei buruzko informazioa eskuragarri jartzea eta era proaktiboan zabaltzea: Egikaritutako planen emaitzak, iraunkortasunaren adierazleak eta abar.
GARAPEN IRAUNKORRERAKO MESEDEGARRI DEN ZERGA EREDU BAT SUSTATZEA	Ingurumen-fiskalitatearen onuren jakitun egitea alderdi interesdunak.	
Natur ondasun komunak	BIZKAIKO INGURUNE NATURALAREN AHALMENAK ZAINZEA ETA AHALIK ETA GEHIEN HANDITZEA	Bizkaiko biodibertsitatea, geodibertsitatea, paisaiak eta, oro har, herrialdeko ekosistemak ezagutuagoak eta balioetsiagoak izan daitezten lortzea.
	URAREN KUDEAKETA EGOKIA BULTZATZEA BIZKAIAN	Uraren erabilera iraunkorra sustatzea alor guztietan: industrian, nekazaritzan, merkataritzan, etxean eta abar.
Kontsumo eta bizimodu arduratsuak	EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO IRAUNKORRAREN IRIZPIDEAK EZAGUTARAZTEA ETA EZARTZEA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN, HAREN MENDEKO ERAKUNDE PUBLIKOETAN ETA BIZKAIKO BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN	Erosketa eta kontratazio publikoetarako politika iraunkor bat garatzea.
	MERKATUAN OBRA, ONDASUN ETA ZERBITZU IRAUNKORRAK UGARIAGO IZAN DAITEZEN BULTZATZEA	Kontsumo iraunkorrean eta haren onuretan hezte, gaur egungo kontsumo-ohituren aldaketa sustatuz.
	HONDAKINAK MURRIZTEA ETA HAIEN KUDEAKETA HOBETZEA	Materia organikoa konposta egiteko erabil dadin bultzatzea.
Mugikortasun hobea eta trafikoa urriagoa	MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA BIZKAIAN	Lehentasunezko bideak darabiltzaten garraio bide publiko eta eraginkorren erabilera bultzatzea.
Osasunerako tokiko ekintza	OSASUNA SUSTATZEA BIZKAIAN	Politika guztiek osasuna aintzat har dezaten sustatzea.
		Hezkuntza abiapuntu hartuta, osasuna biztanleriaren adin-tarte guztietan sustatzea.
		Kontsumo osasungarriaren alde sentsibilizatzea eta horretarako joera erraztea.
	UDALERRI OSASUNGARRIEN GARAPENA SUSTATZEA	Hirigintza-planei udalerriri osasungarriaren kontzeptua eranstea.
	ZAHARTZE AKTIBOA BULTZATZEA BIZKAIAN	Bizi artean eta adin guztietan parte-hartze aktiboa sustatzea, norberaren zein herritar guztien zahartzea hobetzeko. Etengabeko ikaskuntza sustatzea.
ADINEKOEN BIZI KALITATEA HOBETZEA, NORBERAREN BEREGAINZASUN NAHIZ MENDEKOTASUN MAILA GORABEHERA	Belaunaldien arteko harremanak hobetzea.	

BIZKAIA 21 EGITASMOA

KONPROMISOA	LERRO ESTRATEGIKOA	HELBURUA
Tokiko ekonomia bizi eta iraunkorra	EKONOMIA IRAUNKORRERAKO OINARRIAK EZARTZEA ETA ENPRESA KUDEAKETA ARDURATSUA SUSTATZEA	Ekintzailetzarako heziketa bultzatzea, ekimenerako kultura iraunkorra sustatuz. Iraunkortasun Sistemen ezarpena sustatzea Bizkaiko enpresetan: Berdintasun Planak, Kultur Aniztasuna, Enpresa Erantzukizuna, ingurumen Kudeaketarako Sistemak eta abar. Ondasun eta zerbitzu iraunkorren ekoizpena bultzatzea, energiaren, baliabide naturalen eta substantzia arriskutsuen erabilerak ingurumenari dakartzkion kalteak eragozteko.
	TURISMO IRAUNKORRA SUSTATZEA BIZKAIAN	Turismo iraunkorra eta kalitatekoa sustatzea Bizkaian, egonaldi ertain-luzeak erakarriz.
	BERRIKUNTZA ETA IKERKETAREN KULTURA SUSTATZEA BIZKAIAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO	Berrikuntza eta ikerketaren kontzeptua txertatzea hezkuntzan. Ikerketa zientifikoa bultzatzea. Ekoizpen-sektorearen eta unibertsitate eta lanbide-heziketaren arteko lotura eta koordinazioa sendotzea eta ezagutzan, berrikuntzan eta iraunkortasunean oinarritutako ekonomia baten alde egitea, enplegua gizaratearen eta lurraldearen kohesiorako tresna bihurtzeko. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta unibertsitatearen arteko harremanak indartzea, batez ere Programa honen Lerro Estrategikoetako edozein sakontzeko balio duten proiektuei begira.
Berdintasuna eta gizarte-justizia	BIZKAIAN GENEROEN ARTEKO BERDINTASUNA LORTZEA	Lanean jarraitzea gizon eta emakumeen arteko berdintasuna benetakoa izan dadin arlo guztietan. Ahaleginak batzea emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko.
	BERTAKO NORTASUNA ETA KULTURA SUSTATZEA	Euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzea. Euskal kultura eta bertako kultur adierazpenak bultzatzea.
	ANIZTASUNA ELKARBIZITZAREN ALDEKO ELEMENTU GISA KUDEATZEA	Aniztasunari irekitako gizarte bat lortzeko printzipio eta balioetan hezte. Integrazioaren eta elkar ulertzearen alde lan egitea, kulturartekotasuna ez dadin ikusi bertako kultura galtzearen baliokidetzat. Desberdintasun sexualarekiko tolerantzia eta errespetua lantzea.
	GIZARTE EREDU BIDEZKO ETA OREKATU BAT ERATZEA BIZKAIARENTZAT	Etengabe aztertzea zein den gizaratearen errealitatea, zer behar eta eskatzen duten herritarrek eta zer emaitza lortzen diren administrazioek alor horietan duten esku-hartzearekin.
Tokian tokikotik maila globalera	GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA	Politikak iraunkortasunaren aldekoak eta koherenteak izan daitezten bultzatzea gurean garapenerako lankidetzaren alde egiten diren jarduketara guztietan.
	KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOAK ARINTZEA	Europak berotegi-efektuko gasen isurpena murrizteko duen helburuaren aldeko ekintzak bultzatzea, eraginkortasun-neurriak aplikatzea energia gutxiago kontsumitzeko, eta energia berriztagarrien ekarpena handitzea.
	INGURUMEN JUSTIZIA SUSTATZEA	Bizkaia Ekologia Ekologikoa gutxitzea.



3.3. Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza-Egitasmoa (2007-2014): Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Estrategia Orokorra

Garapen iraunkorraren alde zeukan konpromisoa I. Bizkaia 21 Egitasmoan (B21E) gauzatu zuen bezala, geroago Bizkaiko Foru Aldundiak Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa ere (IHEE) onartu zuen.

Hezkuntzarako Egitasmoa eta bere eskuduntzak baliatuz, Aldundiak bizkaitarrak gaiaz informatzeko, sentsibilizatzeko eta hezteko lana gidatu, garatu eta sustatu nahi du, azken helburu izanik Lurralde Historikoaren garapen iraunkorra. Dokumentuan, Iraunkortasunerako Hezkuntzaren kontzeptu nagusiekin batera, lanari ekiteko eta ekimena Bizkaian aplikatzeko tresnak laburbildu dira, epe-muga gisa harturik 21 Foru Agendaren (B21E) indarraldia eta Nazio Batuek aldarrikatutako Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Hamarraldiaren iraupena.

Bizkaia 21 Egitasmoarekin egin zen bezala, hau ere 2010ean berrikustea erabaki zen, berez hainbat aldiz egokitu eta eguneratu izan den arren, etengabeko hausnarketaren fruitu, baina baita hala aurreikusi zelako ere egitasmoa eta haren balorazio-sistema diseinatu zirenean.

IHEE 2007-2014ren xede-ekintzak garatzeko, 48 ekimen planteatu ziren, bederatzi lerro estrategiko hauen inguruan ardazturik:

- Gizartearekiko komunikazio- eta informazio-bideak hobetzea.
- IHrako ekipamenduen sarea sendotzea.
- Foru Erakundearen bertan IHrako parte-hartzea eta prestakuntza sustatzea.
- Jorratu beharreko gaien zerrenda handitzea.
- IHa zuzentzen zaien sektore zein norbanakoen multzoa ugartzea.
- Komunikaziorako eta parte-hartzerako tresna berriak bilatzea alderdi metodologikoak hobetzeko.
- IHrako jardueretako parte-hartzea eskuragarri jartzea eta sustatzea.
- Bizkaian antolatzen diren IHrako prestakuntza-ekintzak bultzatzea eta osotzea.
- IHaren alorreko ikerketa sustatzea.



Programaren gauzapen mailari erreparaturik, ondo-rioztatzen da bete egin direla lerro strategikoetan proposatutako ia ekintza guztiak; datu xeheagoetan, 36 ekintza finkaturik daude, %75eko ezarpenera iritsita, beraz. Egia da, dena den, batzuk ez direla oraindik martxan jarri hainbat arrazoi direla medio, batez ere erabilitako metodoek baliagarritasuna galdu dutelako eta egoera ekonomikoak gastu publikoa kontrolatzeko neurriak harrarazi dituelako. B21Erekin kasuan jokatu den bezala, garatu gabe geratu diren ekintzak aztertu egingo dira, hala badagokio horiek Ekintza Egitasmo berrian txertatzeko.

Aurreko IHEEren indarraldia bukaturik, haren printzipioak gauzatzeko asmoarekin jarraitu behar dugu, baina gaur egungo gizartearen arazoei erantzunez, lurralde osoko politika guztiak koordinatuz eta Bizkaiko Foru Aldundia noranzko berean garatzen ari den ekimenak bateratuz.

Azaldutakoaren haritik, unea da Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzaren estrategia berritzeko, esparru formalek, informalek zein ez-formalek parte hartzeko moduan, iraunkortasunaren alde diharduten eragile guztiak barnean hartuta eta IHEErekin lotutako gai guztiei helduta, adibidez: norberaren garapena, ingurumen-hezkuntza, kulturak garapen iraunkorraren alde egin ditzakeen ekarpenak, lan-trebakuntza; eta, humanitateen beste ikuspuntutik, bakea errespetatu beharra, indarkeriarik eza, kultur aniztasuna, toki-ko ezagutzak eta antzinako jakintza eta usadioak eta printzipio unibertsaltzat jotzen ditugun giza eskubi-deak, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, demokrazia edo justizia soziala.



4

Diseinu eta onarpen prozesua

4

Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa 2020 mamitu edo diseinatzean, aintzat hartu nahi izan dira iraunkortasunaren ikuspegi guztiak. Hortik joz, Aldundiak berak ikuspegi askotariko eta konplexu baten alde egiten du, foru-erakundearen eguneroko lan-esparru baitira iraunkortasunaren ingurumen-alderdiak, kulturalak, ekonomikoak zein sozialak, gobernantzaz, gaikuntzaz eta parte-hartzeaz arduratzeaz gain. Kontuan hartzen dira, halaber, zeharkako gaiak ere, hala nola genero-berdintasuna, gazteria eta euskara, eta energiari dagokionez, aparteko garrantzia ematen zaio, ezinbesteko baliabide horren inguruan izaten diren gorabeherengatik, bat etorritik, beraz, **Bizkaiko Energia Iraunkorreko Estrategian (BEIE 2020)** jasotzen den ekimen berritzailearekin.

Lehenik eta behin, abiapuntu hartu dira **Iraunkortasunaren Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza-Egitasmoa (2007-2014)** izenekoaz egindako azterketa eta ebaluazioa, nahiko lorpen maila ona adierazteaz gain euskarri sendo bat eskaini dutenak IHE 2020ri ekiteko eta garatzeko.

Beste urrats azpimarragarri bat izan da zehaztea Bizkaiko Foru Aldundiko zer Zuzendaritza Nagusik diharduten iraunkortasunerako hezkuntza-ekintza nagusietan, lehen aipatu bezala kontzeptuari ematen zaion ikuspegi zabal eta orohartzailearekin jardunez. Ikusmolde horri esker eta **Bizkaia 21 Egitarauen** eragileetan oinarriturik eratu den barne lan-taldeak dokumentua landu du Aldundiaren ikuspegitik.

Geroztik, foru-erakundearen kanpoko eragileek aztertu eta aberastu dute agiria. Horrela, entitate jakitun eta eskarmentu handiko hauek bere iraunkortasunerako hezkuntzaren ezagutza, bai hezkuntza arloan bai gizarte orokorrean, erantsi diote.

IHEa prozesu horretan zehar hobeturik, **Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseiluaren** aurrean aurkeztu egin da.

Azkenik, **Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa 2020** Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari helarazi zitzaion, organoaren onetsia jaso zezan.

5



2015-2020 Ekintza-egitasmoa

5

Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa 2020ren helburu nagusia da Iraunkortasunaren kultura Bizkaian zabaltzea.

Egitarauarekin antolatu edo egituratu nahi dira garapen iraunkorra Lurralde Historikoan sustatzeko baliorekin lezaketan planak, programak, proposamenak eta ekintza zehatzak.

5.1. Egitasmoaren printzipioak

DIMENTSIO ANITZEKO ZEHARKAKOTASUNA.

Horien berezkoa duen izaera orohartzailerik edo holistikoa beharrezkoa da gaiaren ikuspegi zehatz bat, batere samurra ez dena erakundeetan zein gizartean bertan, ingurumenaren alderdiari ez ezik, hezkuntzatik beste esparru batzuei heldu behar zaielako, sozialari, ekonomikoari, gobernantzarari edo ekonomikoari kasu.

GAIKAKO JARDUTE EREMUAK

- INGURUMENA
- KULTURA
- EKONOMIA
- GIZARTEA
- GOBERNANTZA ETA PARTE-HARTZEA
- EZAGUTZA, AHALDUNTZEA ETA GIZARTE-BERRIKUNTZA

JARDUTE ESPARRU ESTRATEGIKOAK

- TOKIKO ADMINISTRAZIOAK: FORU ETA UDAL ADMINISTRAZIOAK
- HEZKUNTZA FORMALA, EZ-FORMALA ETA INFORMALA
- ENPRESA
- HERRITARRAK ETA GIZARTE ZIBILA

ERANTZUNKIDETASUNA.

Norbanakoak beren erabaki eta ekintzen jabe diren gizarte heldu batean, eta halakoxea da gurea, BFAk kolektiboen eta pertsonen alde jokatu behar du, ikasketza-prozesuak erraztuz, baina ez erabakiak aurretik harturik emanda, ezpada laguntza begirunez eta asmo onenez eskainiz.

EGINEZ IKASI.

Aldaketak benetakoak izan daitezen, beharrezkoa da informatzea, zabaltzea eta sentsibilizatzea, baina ez nahikoa. Norbanakoek zein kolektiboen beren egin behar dute hobekuntza eta bikaintasuna lortzeko konpromisoa, horrela erabateko iraunkortasunerantz jotzeko. Zeregina da, hartara, konpromiso horiek azalera zitezen, eta dagoeneko arduraz jokatzeko dutenak "mimatzea".

INGURUMEN ARLOKO EKINTZARAKO HEZKUNTZA.

Asmoa da jokamolde proaktiboa sortzea ingurumenaren alorreko, eta jarrera hori beste sektore batzuetara zeharkakotasunez iritsaraztea. Baliagarri ditugun baliabide naturalak mugatuak izatea, ekosistemek gizakioi ematen dizkiguten onurak eta aurreko garaietako ingurumen-krisiak nahikoa arrazoi dira ahaleginetan jarraitu dezagun eta ekimen berriak abia ditzagun ingurumenaren alde eta lurraldearen kalitatea hobetzeko.

LANKIDETZA.


Lankidetzaren, elkarlana eta itunak erraztu ditzaketen gizarte-eragileak bilatzea. Instituzioen lankidetzaren, itun publiko-privatuak, gizarte-administrazioak...; hots, sinergiak eratzea alde guztietarantz.

PARTE-HARTZEA.

Gizarte eta lurralde biztanle guzti-guztiak izan daitezke arazoaren konponbidea, hobekuntzarako eragileak, baina baita erronketatik eta krisietatik datozkigun aukeren onuradunak ere. Non ekin lanari? Parte hartu nahi duen edozein pertsonak tresnak aurkituko ditu Egitarauan, etxetik, lantokitik, ikastetxetik nahiz atsedentokitik bere alea jartzeko.

EKINTZARAKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- ZABALTZEA
- SENSIBILIZATZEA
- GAITZEA
- ERA IRAUNKORREAN JOKATZEA
- EZAGUTZEA ETA BERRITZEA



5.2.

Egitasmoaren garapena

Garapenari dagokionez, **4 konpromiso** planteatzen dira:

KONPROMISOAK

- IRAUNKORTASUNAREN KONTZEPTUA ZABALDU ETA SUSTATZEKOA.
- GURE ONDARE NATURALA ETA KULTURALA EZAGUTARAZTEKOA.
- JOKAMOLDE EGOKIETARAKO TRESNAK ZABALTZEKOA, GURE AZTARNA EKOLOGIKOA GUTXITZEA ERRAZTE ALDERA.
- ANIZTASUNAREN ALDEKOA ETA ONGIZATE INTEGRALEAN OINARRITUTAKO GIZARTE EREDU BIDEZKO ETA INKLUSIBO BAT TRANSMITITZEKOA.

Helburu horiek lortzeko, **Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekintza Egitasmoa 2020**k zenbait lerro estrategiko eta helburu operatibo proposatzen ditu, ekimen berritzaileen multzo batan bitartez bideratuak. Orain azaldu dugun guztia da hurrengo ataleko gaia.

IRAUNKORTASUNAREN KONTZEPTUA ZABALDU ETA SUSTATZEKO KONPROMISOA

1. LERRO ESTRATEGIKOA. TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALTASUNERA ETA ALDERANTZIZ. HURBILEKO ERREALITATEARI HELTzea

1.1. helburu operatiboa.- Informazio-bide berrien bitartez, Iraunkortasunerako Hezkuntzarekin (IH) lotutako ekintzen berri helaraztea dagokien eragile guztiei (herritarrak, ikastetxeak, gizarte-eragileak, enpresak...), elkarrizketarako eta esperientziak trukatzeko esparruak eratuz.

1.1.1 ekimen berritzailea: Bizkaiko Foru Aldundiaren iraunkortasunerako hezkuntza-eragileen foroa sortzea, 2020 Iraunkortasunerako Hezkuntzaren dinamizatzaile gisa jardun dezan.

1.1.2 ekimen berritzailea: Bizkaia 21 atariaren bitartez, IHarekin zerikusia duen informazioa eremu geografiko gehiagotara eta komunikaziorako teknologia berrietara zabaltzea.

1.1.3 ekimen berritzailea: Ikus, Ekin eta Iraun. Iraunkortasuna zabaltzeko ikus-entzunezkoak.

1.2. helburu operatiboa- Bizkaian IHaren alorrean diharduten eragileen koordinazioa eta lankidetzaren lortu, mota desberdinetako gizarte-eragileak elkartzeko balio duten sareak eta itunak sortuz horretarako.

1.2.1 ekimen berritzailea: Iraunkortasunerako hezkuntzaren alorrean arituko den instituzioarteko eta diziplina anitzeko lan-talde bat eratzea.

1.3. helburu operatiboa- Bizkaiko Foru Aldundia, administrazio eredugarri, berritzaile eta motibagarria.

1.3.1 ekimen berritzailea: Iraunkortasunarekin zerikusia izan dezaketen edukiak gehitzea prestakuntza-programari, gaia errazago txarta dadin jarduera-arloetan.

1.3.2 ekimen berritzailea: Iraunkortasunaren ikaskuntza BFAren jarduera-alor guztietara iritsarazteko baliabideak sortzea.

1.3.3 ekimen berritzailea: Berariazko ekintzak erakundeek zein enpresek garapen iraunkorren aldeko ekimenak abaitzen dituzten.

GURE ONDARE NATURALA ETA KULTURALA EZAGUTARAZTEKO KONPROMISOA

2. LERRO ESTRATEGIKOA. INGURUMENA

2.1. helburu operatiboa- Bizkaiko ondare naturala, landa-aldea, paisaiak eta ekosistemen zerbitzuak ezagutaraztea.

2.1.1 ekimen berritzailea: Geodibertsitatea gehitzea inguru naturala ezagutarazteko eta haren balioa azpimarratzeko jarduerari.

2.1.2 ekimen berritzailea: Biodibertsitatearen, paisaien, natura zaindu beharrendu eta ekosistemen onuren garrantzia azpimarratzeko ekimen berriak garatzea, herritarrek balio horien guztien guztiz jakitun egiteko.

2.1.3 ekimen berritzailea: Eskola-programak eta bisitarienetzako arreta-jarduerak koordinatzea BFAk nahiz beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten gune basteuetan.

3. LERRO ESTRATEGIKOA. GURE NORTASUNA ETA BERTAKO KULTUR ANIZTASUNA

3.1. helburu operatiboa- Bizkaiko ondare materiala zein immateriala ezagutaraztea.

3.1.1 ekimen berritzailea: Programak eta bisitarienetzako arreta-jarduerak koordinatzea BFAk nahiz beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten erreferentziako kultur ekipamenduetan.

3.1.2 ekimen berritzailea: Heziketa-eskaintza berria kultur ondare materialaren eta immaterialaren interpretazio-guneetan.

3.1.3 ekimen berritzailea: Meatzaldeko Kultur eta Ingurumen Parkeko Interpretazio Zentro berriaren heziketa-eskaintza.

3.2. helburu operatiboa- Belaunaldi arteko elkar ulertzea bultzatzea.

3.2.1 ekimen berritzailea: Belaunaldi arteko argazki-rallya.

JOKAMOLDE EGOKIETARAKO TRESNAK ZABALTZEKO ETA HORRELA GURE AZTARNA EKOLOGIKOA GUTXITZEKO KONPROMISOA

4. LERRO ESTRATEGIKOA. NOLA KONTSUMITU ETA ERABILI ZENTZUZ ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK

4.1 helburu operatiboa- Sentsibilizatzea kontsumitzen eta erabiltzen ditugun ondasun eta zerbitzuak al-bait ondoen baliatzeko, eta jakinaraztea badirela ondasun zein zerbitzu iraunkorrak eta solidarioak.

4.1.1 ekimen berritzailea: Heziketa-ekintza berriak zabaltzea ekosistemetako zerbitzuak (ura, elikagaiak, energia...) zentzuz eta era solidarioan kontsumitzea eta erabiltzea sustatzeko.

4.1.2 ekimen berritzailea: Heziketa-programa. Helburua: energiaren gaia iraunkortasunaren paradigma gisa lantzea.

4.1.3 ekimen berritzailea: Lehen sektoreko merkatuan eskuragarri dauden ondasun eta zerbitzu iraunkorrak eta solidarioak sustatzeko jardunaldiak lehen, eta haiek ikusarazteko moduak (etiketak eta publizitatea).

5. LERRO ESTRATEGIKOA. HONDAKINAK, ISURKETAK, EMISIOAK ETA ZARATA GUTXIAGOTZEA

5.1 helburu operatiboa- Gaikuntza eskaintzea sortzen ditugun hondakinak eta isurketak egoki kudeatzeko, bizimoduak aldatuz horretarako (kontsumo arduratsua).

5.1.1 ekimen berritzailea: Laguntza ematea udal eta mankomunitateei hondakinak gutxiagotu beharraz sentsibilizatzeko abiatzen dituzten ekimenetan, eta gaikako bilketari dagokionez, bereziki materia organikoa biltzeko programetan: bosgarren edukiontzia, autokonpost-ontziak...).

5.2. helburu operatiboa- Gaikuntza eskaintzea eguneroko joan-etorrietan sortzen ditugun isurpenak eta zarata gutxiagotzeko (mugikortasun iraunkorra).

5.2.1 ekimen berritzailea: Bizikletarako Aldundiko estrategian proposatutako jarduera berritzaileak mugikortasun iraunkorraren alde eta bizikleta garraiobide gisa sustatzeko.

6. LERRO ESTRATEGIKOA. LURRALDEAREN ERABILERA

6.1. helburu operatiboa- Eskuragarri jartzea gaiari buruzko heziketa- eta sentsibilizazio-programak, ardatz izango dutenak lurraldearen zaintza eta paisaiaren eraikuntza eta babesa, lurraldea ondasun komuntzat harturik.

6.1.1 ekimen berritzailea: Bizkaiko Lurraldea Zainduz. Ikasketa-programa, naturaren babes-ekintzetan izandako esperientzien trukean oinarritua (Lurraldearen zaintza).

6.1.2 ekimen berritzailea: Prestakuntza-saioak antolatu, bereziki administrazio publikoei zuzendutakoak, baina baita lurraldearen gainean esku-hartzen duten foru-departamentuei ere.

DIBERTSITATEAREN ALDE ETA ONGIZATE INTEGRALEAN OINARRITUTAKO GIZARTE EREDU BIDEZKO ETA INKLUSIBO BAT TRANSMITITZEKO KONPROMISOA.

7. LERRO ESTRATEGIKOA. EKINTZARAKO PARTE-HARTZEA

7.1. helburu operatiboa- Parte hartzeko prozesu irekiak hobetzeko ekintzak definitzea.

7.1.1 ekimen berritzailea: Iraunkortasunaren aldeko Gazteen Bizkaiko Foroa.

7.1.2 ekimen berritzailea: IHaren alorreko erakundeen, boluntariotzaren eta gizarte parte-hartzearen berri zabaltzea.

7.2. helburu operatiboa- Iraunkortasunerako Hezkuntzari atxikitako kolektiboek parte hartzeko bide berriak ziurtatuko dizkieten berriazko estrategiak zehaztea.

7.2.1 ekimen berritzailea: Norberaren Agenda 21. Iraunkortasunarekin dudak konpromisoa.

8. LERRO ESTRATEGIKOA. BIZI KALITATEAREN BIKAINASUNA OHITURA OSASUNGARRIEN ETA PREBENTZIOZKO JOKAMOLDEEN BIDEZ

8.1. helburu operatiboa- Nutrizio-heziketa sustatzea etxean, eskolan eta komunitatean.

8.1.1 ekimen berritzailea: Ikastetxeetan tokiko elikagaien kontsumoari, osasunari eta iraunkortasunari buruzko hezkuntza-ekimenak eta ekintza orientatzaileak.

8.2. helburu operatiboa- Bizimodu osasungarria sustatzea etxean, eskolan zein komunitatean.

8.2.1 ekimen berritzailea: Prestakuntza ematea kirol-entrenatzaile eta -monitoreei osasunaren eta iraunkortasunaren aldeko eragile gisa gaitu daitezen.

8.2.2 ekimen berritzailea: “Kirola osasunaren bidea” kanpaina, kirol-jarduera fisikoak eta haiekin zerikusia duten ohitura iraunkorrek dakartzaten onurez sentibilizatzeko.

8.2.3 ekimen berritzailea: Iraunkortasuna eta osasuna sustatzen duten Osasun Giroa plataformaren eta Osasun Sarearen berri zabaltzea.

8.2.4 ekimen berritzailea: Hirigintza-planifikazioaren arduradunentzako prestakuntza, udalerrri osasungarri, atsegin eta iraunkorretarako irizpideekin planifikatu beharraz ohartarazteko.

9. LERRO ESTRATEGIKOA. GIZARTE ASKOTARIKOA, BIDEZKOA ETA SOLIDARIOA

9.1. helburu operatiboa- Balioen aldaketa sustatzea, sexuaren araberako gizarte-rolak eta estereotipoak desagerraraziz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasuna bultzatuz.

9.1.1 ekimen berritzailea: Genero ikuspegitik abiatuta zaintzaren arloan lan egiten duen pertsonalaren prestakuntza jardueren diseinu, plangintza, dinamizazio eta ebaluazioan.

9.1.2 ekimen berritzailea: Jokamolde egokiak bilatzea eta hirigintzako profesionalen taldeei prestakuntza eskaintzea hiri- nahiz lurralde-hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeko eraz.

9.2. helburu operatiboa- Genero-indarkeria desagerrarazteko hezte.

9.2.1 ekimen berritzailea: Emakumeen aurkako indarkeriaren ezabaketan gizartearen kontzientziatzea eta parte hartze aktiboa sustatzea.

9.2.2 ekimen berritzailea: Beldur Barik programaren ezagutza zabaltzea. Genero-indarkeriari buruzko film laburrak eta bestelako komunikazio-baliabideak.

9.3. helburu operatiboa- Gizarte-inklusioaren alde hezte eta sentibilizatzeko.

9.3.1 ekimen berritzailea: Ezgaitasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko ekimenak antolatu beharraz sentibilizatzeko (ONCE, FEKOOR).

9.3.2 ekimen berritzailea: Herritarrei gizarte zerbitzuei buruzko hezkuntzako-laguntzako informazioa ematea.

9.3.3 ekimen berritzailea: Iraunkortasunerako heziketa-tresnak behar bereziak dituzten pertsonentzat egokitzea.

9.4. helburu operatiboa- Arriskuen prebentziorako eta adinekoen eta mendekotasundunen zainketarako hezte.

9.4.1 ekimen berritzailea: Zabalkuntza handiagoa ematea adineko pertsonen programei.

10. LERRO ESTRATEGIKOA. NOLA JO ONGIZATEKO GIZARTE BATERANTZ

10.1. helburu operatiboa- Ekosistemen zerbitzu, ekonomia berde, gizarte-berrikuntza eta garapen iraunkorrezko ezagutza handitzea.

10.1.1 ekimen berritzailea: Informazio- eta prestakuntza-programa, honako alderdi hauek eskaintzen dituzten aukerei buruzkoa: ekosistemetako zerbitzuen eta ekonomia berdearen ikuspuntuak, berrikuntza sozialak eta iraunkortasunaren ikuspegi integralak.

10.2. helburu operatiboa- Iraunkortasunerako hezkuntzan eta heziketan tresna didaktikoak izan daitezkeen kontzeptuak, metodologiak eta baliabideak sustatzea.

10.2.1 ekimen berritzailea: Hezkuntza-metodologia berriekin esperimendu eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin -IKT- (Internet, teknologia mugikorra) eta sare bidezko lanarekin uztartu, iraunkortasunerako hezkuntza-sistema berriak bultzatzeko asmoz.

6



iraunkortasuna



Segimendua eta ebaluazioa

6

Bizkaiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako Ekin-tza Egitasmoa 2020 egoki gauzatuko bada, fun-tsezkoa da haren segimendu eta ebaluazio egitea, ekintzarako lerroak etengabe hobetuz eta egokituz (ikuspegi eta kudeaketa moldakorrak). Atal honetan azaltzen da, beraz, zer nolako segimendu- eta ebalua-zio-bideei deritzegun egokien programarako eta zertan zehaztuko diren.

Segimenduz ari garela, esku-hartze publikoen ka-suan prozesu jarraitu bat da, datuak ematen dizkiguna egiaztatzeko halako politika, egitarau edo egitas-mok harengandik espero zena betetzen duen, baina eba-luazioak ez bezala, gauzaren ondorioetan edo eraginean erreparatu gabe, eta, hortaz, bi prozesuak elkarren osagarriak dira.

Izan ere, ebaluaziotzat jo ohi dira behaketa, neurketa, azterketa eta interpretaziorako prozesu sistematikoak, eta haien helburua egitarau, plan edo politika publiko bat ezagutzea eta, ebidentzietan oinarriturik, haren diseinua, egikaritzea, efektuak, emaitzak eta eragina baloratzea.

Oro har, ebaluazioa lagungarria gertatzen da baldin eta:

- Informazioa ematen badu burututa nahiz aribidean egonik etorkizunean politika publikoak planifikatze-ko eta prestatzeko balio dezaketen jardueren in-guruan.
- Baliagarria bada interes publikoko erabakiak hartzeko eta arreta lortu nahi diren helburuetara zuzentzeko.
- Kontrolerako tresnak ematen baditu ikuspegi ad-ministratiboaren, legezotasunaren eta finantza-zioaren aldetik.
- Lagungarria bada programa- edo proiektu-fasee-tako akatsak igarri eta zuzentzeko.
- Ahalbidetzen badu martxan jarritako jardueren ko-menigarritasuna baloratzea eta egikaritzea hobetze-ko moduak bilatzea.

Eskua artean dugun egitasmoari dagokionez, Inguru-men Sailak izango du IHE 2020ren segimendu oroko-

rraren ardura, jarduerak beste sail batzuek sustatuak nahiz hark berak egikarituak izan, eta, era berean, In-gurumen Sailak egingo du egikaritutakoaren ebaluazio publiko eta gardena ere.

Zeregin horretan laguntzaile izango ditu beste sailek iraunkortasun-eragile izendatutako pertsonak, sailari ekimene bilakaerari buruz emango dioten informa-zioari esker etengabeko segimendua egin ahalko bai-ta IHE 2020ren nondik norakoaz.

Bestalde, iraunkortasunerako heziketaz jardungo duen erakunde arteko lan-taldeak, Egitarau hone-tan aurreikusten den ekimenetako bat hain zuzen, kanpo-ebaluaziorako aukera emango du.

Erraztasunaren eta eraginkortasunaren mesedean, bi mekanismo planteatzen dira ebaluazioa eta segimen-dua egiteko:

- **Urteko segimendu-txostenak:** haietan esku-har-tze bakoitzarekin lortutakoaren berri emango da, alderdi hauetan zehaztuta:
 - Zenbateraino bete diren ekintzak.
 - Helburu bakoitzerako ekintzen ebaluazioa.
 - Neurri zuzentzaileen proposamena eta lerro be-rrien azterketa.
- **Amaierako ebaluazio-txostena:** 2020. urtean egingo da, eta hurrengo IHE egin aurreko urratsa izango da. Txostenean ekintzek eta ekimene izan-dako eragina ebaluatuko da.

Horiek gorabehera, eta hala behar bada, aipatutako azterketen osagarri, sektorekako azterketak eta ana-lisiak ere egingo dira.

Segimenduaren eta ebaluazioaren bidez bildutako informazio guztia ikusgai eta parte-hartzea ahalbide-tzeko moduan esekiko da Bizkaiko Foru Aldundiaren webean (www.bizkaia.eus) eta Bizkaia 21 atarian (www.bizkaia21.eus).

Ekintza bakoitzak bere xehetasunezko fitxa izango du, haren egikaritzea eta etengabeko segimendua errazte-ko. Fitxetan hainbat alderdi zehaztuko dira, hala nola

ekintzari esleitutako aurrekontua, gauzapean-adierazleak, organismo arduradunak eta eragile laguntzailerak, emaitzen adierazleak eta beste. Era horretan errazago bildu ahalko da neurrien betetze mailari buruzko informazioa, kuantitatiboa zein kualitatiboa.

Jarraian, zehatzago deskribatzen dira informazio esanguratsua lortzeko asmoz erabiliko diren lanabesak. Segimendu eta ebaluaziorako tresna gisa baliatuko dira, besteak beste, adierazleen sistema, dokumentuen azterketa, ebaluaziorako inkestak eta elkarrizketak.

Duten garrantziagatik, azalduko dugu orain zer ezaugarri izango dituzten ebaluaziorako adierazleak. Adierazleak, aldagai edo faktore kuantitatibo zein kualitatiboan multzo bat, bide erraz eta fidagarri bat dira lorpenen eta aurrerapenen zenbaterainokoa neurtzeko, politika bati lotutako aldaketan berri eskuratzeko edo garapen-organismo baten emaitzak ebaluatzeko.

Politika publikoen segimendu eta ebaluaziorako maiz erabiltzen den sailkapenetako bati helduz, adierazle mota hauek neurtu, aztertu eta interpretatuko dira:

- **Egikaritzaren adierazleak:** programa baten ekin-tzen gauzapean finantzarioa (egindako gastuak) eta fisikoa (gauzapean maila) adierazten dituzte.
- **Emaitzen adierazleak:** egindakoaren zenbatespena adierazten dute.
- **Inpaktuaren adierazleak:** adierazten dute zer eragin izan duen ebaluaziorako programak helburu zehatz zein orokorreki dagokienez eta xede-populazioarengan.

Gerta liteke, ordea, adierazleok era homogeneo eta sistematikoan ez aplikatzea IHEren ekimen guztien kasuan, neurri bakoitzaren ezaugarriak direla medio suerta daitezkeen zailtasunen ondorioz.

Genero-ikuspegia kontuan har dadin sustatzeko, segimendu eta ebaluaziorako adierazleak ematen dituzten

datuak sexuaren arabera bereiziko dira, ahal den beste ondorioztatzeko ea emakumeek zein gizonek parte hartzen duten programaren neurrietan eta ekintzetan, eta kolektiboetako batek parte hartu ezean, zergatik gertatzen den.

Era berean, datuak adin-tarteen arabera ere tratatuko dira, bereziki gazteen kolektiboari erreparatuz.

Gorago deskribatu diren ekimen berritzaile bakoitzaren adierazleak aurretiaz identifikatu dira, ekimena diseinatu bitartean, alegia, eta horregatik ageri dira zehazturik dagokion fitxan, baina horrek ez du baztertzen ekimena martxan dagoenean beste adierazle batzuk ere identifikatzea.

Adierazleen bilketa eta analisia erratzeko, saiatu gara egiaztapen-tresna horiek SMART adierazleak deritzen ezaugarriak bete ditzaten, eta horrenbestez berarriazkoak, neurgarriak, helbururako egokiak, eskuragarriak eta denboran mugatuak izan daitezzen.

Behin adierazleen sistema deskribaturik, aipatutako beste ebaluazio-sistemen xehetasunak emango ditugu.

Dokumentuen analisia eta elkarrizketak gehienbat kanpo-jarduleen esku utzitako ekimenei dagozkie. BFAk ebaluazio-tresna horiek baliatuko ditu zerbitzuak esleitu zaizkien enpresek aldizkako memoriak eta txostenak (hilabetekoak, hiruhilekoak, urtekoak...) aurkezten dituzten kasuetan eta foru-sailekin ikuskapen-bilerak egiten direnetan.

Ebaluaziorako inkestei dagokienez, zuzenean nahiz zeharka aplika daitezke, sailek eurek jo baitezakete ekin-tzen hartzaile diren pertsonengana inkestei erantzun diezaieten, edo, dokumentuen analisiarekin aurreikusi bezala, zeregin hori zerbitzuak esleitu zaizkien enpresen esku utzi. Lan hori nabarmen errazagoa gertatzen da enpresa esleipendunek beren jarduketa era bermatzen duen kalitate-sistemaren bat dutenean.



ERANSKINAK

1e

1. ERANSKINA: Konpromisoen, lerro estrategikoen eta helburu operatiboen laburpena

1e

IRAUNKORTASUNAREN KONTZEPTUA ZABALDU ETA SUSTATZEKO KONPROMISOA

1. LERRO ESTRATEGIKOA

TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALTASUNERA ETA ALDERANTZIZ. HURBILEKO ERREALITATEARI HELTZEA

1.1. helburu operatiboa.- Informazio-bide berrien bitartez, Iraunkortasunerako Hezkuntzarekin (IH) lotutako ekintzen berri helaraztea dagokien eragile guztiei (herritarrak, ikastetxeak, gizarte-eragileak, enpresak...), elkarrizketarako eta esperientziak trukatzeko esparruak eratuz.

1.2. helburu operatiboa.- Bizkaian IHaren alorrean diharduten eragileen koordinazioa eta lankidetzeta lortu, mota desberdinetako gizarte-eragileak elkartzeko balio duten sareak eta itunak sortuz horretarako.

1.3. helburu operatiboa.- Bizkaiko Foru Aldundia, administrazio eredugarri, berritzaile eta motibagarria.

GURE ONDARE NATURALA ETA KULTURALA EZAGUTARAZTEKO KONPROMISOA

2. LERRO ESTRATEGIKOA

INGURUMENA

2.1. helburu operatiboa.- Bizkaiko ondare naturala, landa-aldea, paisaiak eta ekosistemen zerbitzuak ezagutaraztea.

3. LERRO ESTRATEGIKOA

GURE NORTASUNA ETA BERTAKO KULTUR ANIZTASUNA

3.1. helburu operatiboa.- Bizkaiko ondare materiala zein immateriala ezagutaraztea.

3.2. helburu operatiboa.- Belaunaldi arteko elkar ulertzea bultzatzea.

JOKAMOLDE EGOKIETARAKO TRESNAK ZABALTZEKO ETA HORRELA GURE AZTARNA EKOLOGIKOA GUTXITZEKO KONPROMISOA

4. LERRO ESTRATEGIKOA

NOLA KONTSUMITU ETA ERABILI ZENTZUZ ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK

4.1 helburu operatiboa.- Sentsibilizatzea kontsumitzen eta erabiltzen ditugun ondasun eta zerbitzuak al bait ondoen baliatzeko, eta jakinaraztea badirela ondasun zein zerbitzu iraunkorrak eta solidarioak.

5. LERRO ESTRATEGIKOA

HONDAKINAK, ISURKETAK, EMISIOAK ETA ZARATA GUTXIAGOTZEA


5.1 helburu operatiboa.- Gaikuntza eskaintzea sortzen ditugun hondakinak eta isurketak egoki kudeatzeko, bizimoduak aldatuz horretarako (kontsumo arduratsua).

5.2. helburu operatiboa.- Gaikuntza eskaintzea eguneroko joan-etorrietan sortzen ditugun isurpenak eta zarata gutxiagotzeko (mugikortasun iraunkorra).

6. LERRO ESTRATEGIKOA

LURRALDEAREN ERABILERA

6.1. helburu operatiboa.- Eskuragarri jartzea gaiari buruzko heziketa- eta sentsibilizazio-programak, ardatz izango dutenak lurraldearen zaintza eta paisaiaren eraikuntza eta babesa, lurraldea ondasun komuntzat harturik.



DIBERTSITATEAREN ALDE ETA ONGIZATE INTEGRALEAN OINARRITUTAKO GIZARTE EREDU BIDEZKO ETA INKLUSIBO BAT TRANSMITITZEKO KONPROMISOA

1e

7. LERRO ESTRATEGIKOA EKINTZARAKO PARTE-HARTZEA

7.1. helburu operatiboa.- Parte hartzeko prozesu irekiak hobetzeko ekintzak definitzea.

7.2. helburu operatiboa.- Iraunkortasunerako Hezkuntzari atxikitako kolektiboek parte hartzeko bide berriak ziurtatuko dizkieten berriazko estrategiak zehaztea.

8. LERRO ESTRATEGIKOA BIZI KALITATEAREN BIKAINTRASUNA OHITURA OSASUNGARRIEN ETA PREBENTZIOZKO JOKAMOLDEEN BIDEZ

8.1. helburu operatiboa.- Nutrizio-heziketa sustatzea etxean, eskolan eta komunitatean.

8.2. helburu operatiboa.- Bizimodu osasungarria sustatzea etxean, eskolan zein komunitatean.

9. LERRO ESTRATEGIKOA GIZARTE ASKOTARIKOA, BIDEZKOA ETA SOLIDARIOA

9.1. helburu operatiboa.- Balioen aldaketa sustatzea, sexuaren araberako gizarte-rolak eta estereotipoak desagerraraziz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasuna bultzatuz.

9.2. helburu operatiboa.- Genero-indarkeria desagerrarazteko hezteak.

9.3. helburu operatiboa.- Gizarte-inklusioaren alde hezteak eta sentsibilizatzea.

9.4. helburu operatiboa.- Arriskuen prebentziorako eta adinekoen eta mendekotasundunen zainketarako hezteak.

10. LERRO ESTRATEGIKOA NOLA JO ONGIZATEKO GIZARTE BATERANTZ

10.1. helburu operatiboa.- Ekosistemen zerbitzu, ekonomia berde, gizarte-berrikuntza eta garapen iraunkorrezko ezagutza handitzeak.

10.2. helburu operatiboa.- Iraunkortasunerako hezkuntzan eta heziketan tresna didaktikoak izan daitezkeen kontzeptuak, metodologiak eta baliabideak sustatzea.

2e

2. ERANSKINA: Ekimen berritzaileen fitxak

2e

IRAUNKORTASUNAREN KONTZEPTUA ZABALDU ETA SUSTATZEKO KONPROMISOA

1. LERRO ESTRATEGIKOA

TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALTASUNERA ETA ALDERANTZIZ. HURBILEKO ERREALITATEARI HELTzea.

1.1. helburu operatiboa.-

Informazio-bide berrien bitartez, Iraunkortasunerako Hezkuntzarekin (IH) lotutako ekintzen berri helaraztea dago-kien eragile guztiei (herritarrak, ikastetxeak, gizarte-eragileak, enpresak...), elkarrizketarako eta esperientziak truka-tzeko esparruak eratuz.

Izena

1.1.1: Bizkaiko Foru Aldundiaren iraunkortasunerako hezkuntza-eragileen foroa sortu, IHE 2020 egitasmoaren elementu dinamizatzaile gisa.

Deskripzioa

Iraunkortasunerako hezkuntzan adituak diren langile teknikoz osatutako lan- eta dinamizazio-talde egonkorra eratu. Langile horiek Zuzendaritza Nagusietatik eta atxikitutako organismoetatik etorriko dira.

Helburu espezifikoak

- Forotik IHE 2020 egitasmoak garapen egokia izan dezala orientatu, aholkatu eta koordinatu, baita, aldi berean, segimendu eta ebaluazio jarraitua izan dezala ere.

Espero diren emaitzak

- IHE 2020 egitasmoaren kalitate- eta erdiespen-maila altua izatea.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Inplikaturik dauden Zuzendaritza Nagusi guztiak

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- IHE 2020 egitasmoaren erdieste-maila

Aurreikusitako aurrekontua

—

Izena

1.1.2: Iraunkortasunerako hezkuntzarekin lotutako informazioa beste eremu geografiko batzuetara eta komunikazio-teknologia berrietara hedatu, Bizkaia 21 atariaren bitartez.

Deskripzioa

Dibulgazio-tresna eta -metodo berritzaileak sartu Bizkaia 21 web atarian, informazioaren arkitektura berri batean oinarritutakoak, hedapenerako estilo berrietan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) lagunduta.

Helburu espezifikoak

- Egungo gizarteak dituen informazio-beharrizanak asebetetzen saiatu, iraunkortasunarekin lotutako materien kalitateari zein aniztasunari dagokionez, publiko objektibo espezifikoari arreta emanez.

Espero diren emaitzak

- Informazio-produktu zabala eta anitza eskaini. Produktu horiek, informazioa hedatzeaz haratago, iraunkortasunaren aldeko ekintzekiko sentsibilizazioa eta inplikazioa eragin behar dute publikoarengan.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Bizkaia 21 atarira gaineratutako item-kopurua
- Bizkaia 21 atarira egindako bisiten kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 12.000 euro urtean

Izena

1.1.3: Ikus, Ekin eta Iraun. Iraunkortasunerako ikus-entzunezkoak.

Deskripzioa

Iraunkortasunari buruzko informazioa hedatuko duten ikus-entzunezkoei eta multimedia baliabideei buruzko atala. Atal honetan jasoko dira bai gizarteak (eskolako erkidegoak, elkarteek...) sortutako ikus-entzunezkoak, bai erakunde publikoek sortutakoak. Aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuko duen "Iraunkortasunari, jardunbide egokiei eta gizarte-ongizateari buruzko ikus-entzunezkoen lehiaketa" baten barruan egindakoak aurkeztuko dira.

Helburu espezifikoak

- Iraunkortasunaren alderdi desberdinak jorratzen dituzten ikus-entzunezkoak publikoen eskura jarri, hainbat publikoren sentsibilizazioa eta konpromisoa lortzen lagunduko dutenak, baita Bizkaiko gizartearen sormen-ahalmena bultzatzen ere.

Espero diren emaitzak

- Ikus-entzunezko formatuan hainbat lan sortzeko dinamika sustatu, era guztietako publikoengana hurbiltzea ahalbidetuko dutenak, nerabeengan eta gazteengan arreta berezia jarritz. Atal hau dagoeneko egon badauden sorkuntzekin sendotuko da, iraunkortasunaren aldeko mezua bultzatzeko xede nagusia duten proiektuen barruan sortu direnak.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Kirol eta Gazteria Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Egindako ikus-entzunezkoen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 20.000 euro

1.2. helburu operatiboa-

Bizkaian IHaren alorrean diharduten eragileen koordinazioa eta lankidetzaz lortu, mota desberdinetako gizarte-eragileak elkartzeko balio duten sareak eta itunak sortuz horretarako.

Izena

1.2.1: Erakunde arteko eta diziplina anitzeko lantaldea, iraunkortasunerako hezkuntzari buruzkoa.

Deskripzioa

Honako hau da helburua: Bizkaian, iraunkortasunerako hezkuntzaren arloan, egiten den lana koordinatzea ahalbidetuko duen eragileen sare bat eratzea. Espazio ireki bat legez irudikatzen da, asmo partekatuak dituen eta alderdi guztien artean adostutakoaren arabera funtzionatzen duena.

Sare horretan parte hartu dezaketen erakundearen eta foroaren zenbait adibide:

- Ingurugela (Eusko Jaurlaritzaz).
- Garapen iraunkorrari eta ingurumenaren gaineko hezkuntzari buruzko UNESCOren katedra (Euskal Herriko Unibertsitatea).
- BizkaiLab programa. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- UNED.
- Sukarrieta Eskola Saiakuntzarako Zentroa (SESZ).
- Urdaibaiko Biosfera Erreserba (Urdaibaiko Biosfera Erreserban garapen jasangarrirako interpretazio, ikerketa, gaikuntza eta hezkuntzarako planarekin koordinazioa).
- Iraunkortasunerako hezkuntzako zentroak eta ekipamenduak (natura-parkeetako parketxeak, interpretazio-zentroak, baserri-eskolak eta beste hainbat gune interesgarri).
- Hezkuntza-sektoreko enpresak.
- Bizkaiko gizarteko foroak, mahaiak eta behatokiak:
 - Iraunkortasunari buruzko udal-foroak
 - Elkarrizketa-mahai zibila
 - Haurren behatokia
 - Giza Eskubideei buruzko foroak
 - Genero Indarkeriaren Behatokia
 - Familiaren Euskal Kontseilua
 - Hirugarren Sektorereko Behatokia
 - Pertsona Helduen Behatokia

Helburu espezifikoak

- Bizkaian jarduten duten eragileei buruzko ezagutza izan, baita ingurumen-, kultura-, ekonomia- eta gizarte-iraunkortasunaren alorrean garatzen diren ekintzei buruzkoa ere.
- Ekintzak koordinatu; sinergiak ezarri; eta iraunkortasunerako hezkuntza-arloko ezagutzak, esperientziak eta baliabide guztiak partekatu.

Espero diren emaitzak

- Mahai baten inguruan batu, hala badagokio gaikako mahaietan, Bizkaiko Lurralde Historikoan iraunkortasunerako hezkuntza lantzen duten ahalik eta eragile eta aktore gehien.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Erakunde parte-hartzaileen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 3.000 euro urtean

1.3. helburu operatiboa-

Bizkaiko Foru Aldundia, administrazio eredugarri, berritzaile eta motibagarria.

<p>Izena</p> <p>1.3.1: Ikusmolde iraunkorra duten edukiak prestakuntza-programetara gaineratu, jarduera-eremu desberdinetan sartzearrazteko xedearekin.</p>	
<p>Deskripzioa</p> <p>Karrera- eta lanpostu-prestakuntzarako ikastaroen eskaintza berriztatua, non prestakuntza-materiak iraunkortasunaren ikuspuntuarekin jorratzen diren. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Erosketa eta kontratazio publiko iraunkorra. ▪ Administrazio elektronikoa. ▪ Iraunkortasunerako hezkuntza. ▪ Energia iraunkorra. 2050ean BFA iraunkorra izatea energiari dagokionez. ▪ Genero ikuspegia edukitzea jarduera-esparru desberdinetan (bereziki Kirolbide, Herri-lanak eta Hirigintzara zuzenduta). 	
<p>Helburu espezifikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bizkaiko Foru Aldundiko langileak gaitu, euren zereginetan iraunkortasun sektorialaren edo integralaren alderdi desberdinei lotutako gaitasunekin jardun dezaten. 	
<p>Espero diren emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Iraunkortasunaren ikuspuntutik (gobernantza eta ingurumen-, kultura-, ekonomia- eta gizarte-ikuspegia) prestakuntza jaso duten langileen kopurua areagotu. ▪ Foru-sektoreak Bizkaian eskaintzen dituen zerbitzu publikoen kalitatea hobetu. 	
<p>Eragile arduradunak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia 	<p>Gauzatze-datak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ IHE 2020 egitasmoaren indarraldia
<p>Ebaluazio-adierazlea</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Prestatutako pertsonen kopurua. ▪ Iraunkortasun-irizpideko prestakuntza-orduen kopurua. 	<p>Aurreikusitako aurrekontua</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikastaro-sorta, ikastaroaren edota ikastaroen orduen arabera, egun indarrean dauden tarifak kontuan hartuta.

Izena

1.3.2: Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera-esparruetan iraunkortasunerako ikaskuntzaren txertatzea errazteko baliabideak sortu.

Deskripzioa

Formatu desberdinetako hainbat baliabide sortu, Bizkaiko Foru Aldundiko eta bere foru-sektoreko langileak iraunkortasunerako hezkuntzari buruz informatzeko, jakinarazteko eta haiei prestakuntza ematea errazteko.

Adibideak:

- IHE 2020 egitasmoa argitaratu.
- IHE 2020 egitasmoa ezagutzera emateko liburuxka.
- Prestakuntza-ikastaroa.
- Jardunbide egokien gida iraunkortasunaren ikuspuntutik (genero-berdintasuna, mugikortasuna, energia, kontsumoa eta hondakinak, euskara, laneko osasuna, lankidetzako ekonomia...).
- Mugikortasun iraunkorrari buruzko informazio erabilgarria eta aholkuak dituen gida, foru-sektoreko langileen mugikortasunean iraunkortasuna sustatzera bideratutakoa.

Helburu espezifikoak

- Foru-sektoreko langileen ezagutza, gaikuntza eta inplikazioa areagotu, iraunkortasunaren ikuspuntutik (ingurumenekoa, kulturakoa, ekonomikoa eta soziala).

Espero diren emaitzak

- Bizkaiko foru-langileen gaitasunak eta erresilientzia hobetu.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Iraunkortasunaren ikuspegitik diseinatutako ikastaroetara bertaratutako pertsonen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 12.000 euro urtean

Izena

1.3.3: Jarduerak garatu erakundeek eta enpresek garapen iraunkorraren aldeko ekimenak har ditzaten saiatzeko.

Deskripzioa

Ekimen berritzaile honek informazio-edukiak eta ekintzak prestatzea planteatzen du, iraunkortasunaren arloan jardunbide egokiak sustatzearen aldeko sentsibilizazioa eta inplikazioa sortzeko xedearekin.

Adibideak:

- Iraunkortasunaren kontzeptua hedatu.
- Aurrezpena, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien bultzada. Bizkaian, energia-eredu iraunkor baterantz.
- Paperaren eta beste material batzuen erabilera murriztu. Komunikazio elektronikoa sustatu. Oro har, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) berriak bultzatu.
- Eko-garraioa. Bizkaian, garraio iraunkorrago baterantz.
- Euskal Herriko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2020 izeneko programa zabaldu.

Helburu espezifikoak

- Bizkaiko erakundeetan eta enpresetan iraunkortasunari buruzko ezagutza eta praktika areagotu.

Espero diren emaitzak

- Iraunkortasunaren kultura sustatu eta garapen iraunkorra bultzatzeko jardunbide egokiak areagotu.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Abian jarritako ekimenen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 12.000 euro urtean

GURE ONDARE NATURALA ETA KULTURALA EZAGUTARAZTEKO KONPROMISOA

2. LERRO ESTRATEGIKOA

INGURUMENA

2.1. helburu operatiboa-

Bizkaiko ondare naturala, landa-aldea, paisaiak eta ekosistemen zerbitzuak ezagutaraztea.

Izena

2.1.1: Geoaniztasuna gaineratu natura-ingurunearen gaineko dibulgazio- eta hezkuntza-jardueretara, baita natura-ingurunearen garrantzia azpimarratzeko garaian ere.

Deskripzioa

Ekimen berritzaile honen helburua da edukiak sortzea, eta interpretazio-baliabideak zein natura-ingurunearekin zerikusia duten instalakuntzak egokitzea, Bizkaian dagoen ondare abiotikoari eta geoaniztasunari buruzko informazio osatuagoa eskaintzeko xedearekin.

Adibideak:

- Berariatzko ekipamenduak zehaztu eta egokitu, geoaniztasuna, ondare geologikoa eta geoturismoa interpretatzeko eta horien garrantzia azpimarratzeko.
- Geoaniztasuna dibulgatzeko eta hedatzeko materialak, tresnak eta ekitaldiak landu, teknologia berrietan oinarrituta (ikus-entzunezko didaktikoak, ordenagailuetarako eta telefono adimentsuetarako GIS aplikazioak, etab.).
- Geoaniztasunaren eta ondare geologikoaren kontserbazioaren gainean hezkuntza-erkidegoak duen informazioa, kontzientziazioa, sentsibilizazioa eta inplikazioa sustatu.
- Argitalpenak zein informazio- eta dibulgazio-materialak eta material didaktikoak landu, ibilbideak proposatzen dituztenak.
- Geoaniztasunaren eta ondare geologikoaren interpretaziora eta ezagutzara bideratutako berariatzko jarduerak lantzea sustatu, araututako hezkuntzako hainbat maila pedagogikotan.
- Baliabide geologikoei buruzko berariatzko prestakuntza ikastaroak definitu. Ikastaro horiek gidei, ingurumen-monitoreei, turismoa dinamizatzeko langileei eta ingurumen-eragileei zuzenduta daude.
- Natura 2000 sareko eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako espazioak praktika-laboratorio gisa sendotu, ingurumenaren gaineko hezkuntzari, hedapenari eta dibulgazioari dagokionez.

Helburu espezifikoak

- Geoaniztasunarekin lotutako natura-ondarea ezagutarazi.

Espero diren emaitzak

- Gizarteko sektoreek sarbidea izango dute Bizkaiko geoaniztasunari buruzko informaziora, baita eskuragarri dauden baliabideetara eta ekipamenduetara ere, euren ezagutzak areagotzeko. Aldi berean, anitza bezain aberatsa den natura-ondarearen parte horren garrantzia azpimarratuko da.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Jendartearen eskura jarritako baliabideen eta ekimenen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 12.000 euro urtean

Izena

2.1.2: Bioaniztasunaren, paisaien, naturaren zainketaren eta ekosistemetako zerbitzuen garrantzia nabarmentzeko ekimen berriak garatu, horien gainean herritarrek duten ezagutza-maila egokia izan dadila bermatzeko.

Deskripzioa

Asmoa da bioaniztasuna, paisaiak eta naturaren zainketa ezagutarazteko egiten diren ekimenak hedatzea, hobetzea eta balio gehiago ematea; horretarako, honako estrategia honekin batera egingo da lan: *Bizkaian bio-dibertsitatea babestu, hobetu eta kudeatzeko estrategia*. Askotarikoak dira proposatutako ekimenak, baina, adibide gisa, jarraian agertzen direnak Bizkaiko natura-ondarea ezagutarazteko diseinatu diren jardueren aniztasunaren irudikapen fidela dira.

Zenbait adibide:

- Nekazaritza/Udalak jardunaldiak, Zuhaitz Eguna kanpainen barruan.
- Arrano arrantzalea ingurumenari buruzko hezkuntzarako tresna gisa; ingurumenaren zainketarekin lotutako turismoarekin harremana.
- Hezeguneei (zingirak eta briofitoak) buruzko dibulgazio-kanpaina.
- Mehatxatuta dauden ornogabeei buruzko dibulgazio-kanpaina.
- Espezie exotiko inbaditzaileei (EEI) buruzko sentsibilizazio kanpainak eta alerta-sareak, landu daitezkeen ekintza-planetan jendeak parte hartu dezala sustatuz.
- Erakunde publikoetako eta pribatuetako langileak prestatzeko tailerrak, Espezie Mehatxatuen Kudeaketa Planak gauzatzeko.
- Hondartzei buruzko hezkuntza-baliabide berriak.
- Hondartzak zaintzeaz eta jagotzeaz arduratzen diren pertsonentzako prestakuntza-ikastaroak, bioaniztasunaren kontserbazioari buruzkoak.
- Hirietako inguruneetan bioaniztasunaren zainketa sustatzeko jarduerak.
- Intereseko espeziei buruzko kanpoko seinaleztapena (*Barlia robertiana* informazio-kartela).
- Ekosistemetako zerbitzuek duten garrantziaren gainean konprometitzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak, lurraldean lan egiten duten eragileei zuzendutakoak.
- Fauna Basatia Sendatzeko Bizkaiko Zentroan sendaturiko animalien askapen hezigarria.

Helburu espezifikoak

- Publiko desberdinek Bizkaiko natura-ondareari buruzko ezagupen sakonagoa izango dute; horrela, ondare horrekiko balioespena areagotuko dute, eta hura zaintzeko konpromisoa hartu.

Espero diren emaitzak

- Honako hauen aldeko jarrerak sustatuko dituzten jarduerak dibertsifikatu: bioaniztasuna babestearen aldekoak, babestutako espazioak zaintzearen aldekoak, eta baita Bizkaiko hainbat paisaiaren (naturakoak, landakoak eta hirietakoak) kalitatea zaindu eta hobetzearen aldekoak ere.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Abian jarritako ekimenen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 10.000 euro urtean

Izena

2.1.3: Eskola-programak eta jendeari harrera egiteko ekintzak modu koordinatuan eskaini, Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten babestutako espazioetan.

Deskripzioa

Helburua da koordinazioa hobetzea parketxeetan (hau da, natura-parkeetako interpretazio zentroetan) eskaintzen diren eskola-programen eta jendeari harrera egiteko jardueren artean, baita Natura 2000 sareko ekipamenduetan eta Bizkaiko Foru Aldundiak lagundu edota babesten dituen beste zenbait zentroetan eskaintzen diren jardueren artean ere.

Helburu espezifikoak

- Ingurumen-ekipamenduetako hezkuntza-eskaintza hobetu, lankidetzaz bultzatuz eta sinergiak bilatuz.

Espero diren emaitzak

- Natura-ondarearekin lotutako ekipamendu horien hartzailerek eskaintza zabalagoa eta kalitate handiagokoa jaso dezatela, eta interesatuta dauden pertsonen bisitaldiak areagotu ditzatela, kopuruz zein kalitatez.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Ekipamenduetara egindako bisiten kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 895.000 euro urtean

3. LERRO ESTRATEGIKOA

GURE NORTASUNA ETA BERTAKO KULTUR ANIZTASUNA

2e

3.1. helburu operatiboa-

Bizkaiko ondare materiala zein immateriala ezagutaraztea.

Izena

3.1.1: Programak eta jendeari harrera egiteko ekintzak modu koordinatuan eskaini, Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten erreferentziazko kultura-ekipamenduetan

Deskripzioa

Kultura Ondarearekin lotutako Bizkaiko Foru Aldundiaren ekipamenduak ezagutarazteko programen asmoa hauxe da: gordetzen eta babesten duten ondarearen gaineko ezagutza herritarren eta kanpoko bisitarien artean hedatzea, heziketarako, aisialdirako eta gozamenerako irizpideak erabiltzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten erreferentziazko kultura-ekipamenduak eta ekimenak, besteak beste, ondoko hauek dira: museoak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren beste zenbait kultura ekipamendu, aztarnategiak eta kultura-ondasunak bisitatzeko programa, Ondarearen Europako Jardunaldiak, Euskararen Etxeko programa didaktikoa...).

Honako hauek dira jarduera nagusiak:

- Publikoari irekitzea ondarearen gaineko ekipamendu eta leku guztiak, erabiltzaile guztiek sarbidea izan dezatela ahalbidetuz.
- Bisita-gidatuak antolatzea, bisitarien profil desberdinak aintzat hartuta.
- Hainbat jarduera egitea, ondare-ondasunen gaineko ezagutza areagotzeko eta sakontzeko: hitzaldiak, tailerrak, aldi baterako erakusketak, argitalpenak...
- Ondare-ondasunei buruzko ikerketa- eta dokumentazio-jarduerak sustatzea.

Helburu espezifikoak:

- Kultura-ondarea inbentariatu, ikertu, babestu eta zabaldu, hura kaltetu gabe, datozen belaunaldiei uzteko.
- Belaunaldien arteko harremanak eta zahartze aktiboa sustatzea.

Espero diren emaitzak

- Kultura-ekipamenduak bisitatzea eta ekipamendu horietan egiten diren jardueretan parte-hartzea pertsonen eguneroko beste helburuetako bat bilakatu dadila lortu.

Eragile arduradunak

- Bizkaiko Foru Aldundiaren teknikari espezialistak
- Gizarte Ekintza
- Museoetako eta instalazioetako arduradunak
- Gidak eta monitoreak
- Sektoreko enpresa berezituak

Gauzatze-datak

- Urte guztian zehar

Ebaluazio-adierazlea

- Bisitarien eta jardueretan parte-hartzaileen kopuruak
- Asebetetze-maila

Aurreikusitako aurrekontua

- 1.535.000 euro

Izena

3.1.2: Hezkuntza-eskaintza berria, kultura-ondare materialarekin eta materiagabearekin lotutako interpretazio-espazio berrietan.

Deskripzioa

Ondare-espazio berriak berreskuratzen, interpretatzen eta haiei garrantzia ematen jarraitu. Horrek kultura-eskaintza zabaltzea ahalbidetzen du, eta zabaltze hori ingurua sozioekonomikoki dinamizatzeko tresna gisa ikusten da. Esku-hartze guztietan kontuan izaten ari da iraganaren eta orainaren arteko elkarrizketa, eta horren isla da iraunkortasunaren ikuspuntutik egiten ari den zentzuzko integrazio urbanistikoa. Honako hauek dira lantzen ari diren proiektuak:

- El Pobaleko burdinola
- Foruko aztarnategi erromatarra
- Muñatones gaztelua
- Omako baso margotua
- Arrolako oppiduma
- Ereñozar gaztelua

Horietan guztietan bisita-gidatuak egiten dira etengabe edota garaiaren arabera; horrez gain, dibulgazio- eta prestakuntza-jarduerak egiten dira, baita harreman-jarduerak ere garapenerako tokiko eragileekin.

Helburu espezifikoak

- Kultura-ondarea inbentariatu, ikertu, babestu eta zabaldu, hura kaltetu gabe, datozen belaunaldiari uzteko.

Espero diren emaitzak

- Zentroetara bertaratzen diren pertsonen kopurua areagotu, baita zentro horietan egiten diren jardueretan parte hartzen dutenen kopurua ere.

Eragile arduradunak

- BizkaiKOako ondare-teknikariak
- Sektoreko enpresa berezituak

Gauzatze-datak

- Urte guztia

Ebaluazio-adierazlea

- Bisitarien kopurua
- Asebetetze-maila

Aurreikusitako aurrekontua

- 500.000 euro

Izena

3.1.3: Meatzaldeako Kultura eta Ingurumen Parkeko interpretazio-zentro berriko hezkuntza-eskaintza.

Deskripzioa

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoak instalazioak handitu eta eduki tematiko berriak hartuko ditu; hori dela eta, Meatzaldeako Kultura eta Ingurumen Parkea izatera pasatuko da. Instalazioak egokitzeaz gain, berriztatu egingo da, eta museo-baliabide eta -zerbitzu berriak sortuko dira, normala denez.

Helburu espezifikoak

- Zentro bakarrean bildu Zugaztietako inguruarekin eta Meatzaldeako babestutako biotopoarekin lotutako meatzaritzako ondarea eta natura-, kultura- eta paisaia-balioak.

Espero diren emaitzak

- Zugaztieta – Meatzaldeako meatzaritzaren guneak gordetzen dituen balioen kalitatezko eskaintza, Kultura eta Ingurumen Parke berrian.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioa
- Eusko Jaurlaritza
- Abanto-Zierbenako Udala

Gauzatze-datak

- 2015-2017

Ebaluazio-adierazlea

- Meatzaldeako Kultura eta Ingurumen Parkera egindako bisitak

Aurreikusitako aurrekontua

- 1.000.000 euro *
(Bizkaiko Foru Aldundiak egin beharreko ekarpena. Ekarpen horri gehitu behar zaizkio Eusko Jaurlaritzak, Abanto-Zierbenako Udalak eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioak egiten dituztenak).

3.2. helburu operatiboa-

Belaunaldi arteko elkar ulertzea bultzatzea.

Izena 3.2.1: Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko argazkien rallya egitea.	
Deskripzioa Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko argazki lehiaketa.	
Helburu zehatzak <ul style="list-style-type: none">▪ Belaunaldien arteko harremanak eta zahartze aktiboa sustatzea.	
Itxaroten diren emaitzak <ul style="list-style-type: none">▪ 20 parte hartzaile	
Erantzukizuna duten eragileak <ul style="list-style-type: none">▪ Gizarte Ekintza	Egiteko datak <ul style="list-style-type: none">▪ Urria
Ebaluazioaren adierazlea <ul style="list-style-type: none">▪ Parte hartzen duten pertsonen kopurua	Zenbatetsi den aurrekontua <ul style="list-style-type: none">▪ 8.000 euro

JOKAMOLDE EGOKIETARAKO TRESNAK ZABALTZEKO ETA HORRELA GURE AZTARNA EKOLOGIKOA GUTXITZEKO KONPROMISOA

2e

4. LERRO ESTRATEGIKOA

NOLA KONTSUMITU ETA ERABILI ZENTZUZ ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK

4.1 helburu operatiboa-

Sentsibilizatzea kontsumitzen eta erabiltzen ditugun ondasun eta zerbitzuak alaitz ondoren baliazteko, eta jakinaraztea badirela ondasun zein zerbitzu iraunkorrak eta solidarioak.

Izena

4.1.1: Hezkuntza-ekintza berriak zabaltu, ekosistemetako zerbitzuak (ura, energia, natura, aisia...) modu arduratsuan eta solidarioan kontsumitzea eta erabiltzea sustatzeko xedearekin.

Deskripzioa

“Ekosistemetako zerbitzuak eta gizakiaren ongizatea” kontzeptutik abiatuta, lurraldean dagoeneko egiten diren hezkuntza-ekintzetara ikuspegi berri bat eranstean datza, baita hainbat eragilek bultzatzen dituzten ekimenak babestean ere. Planteatzen den beste aukera bat da tresna eta baliabide berriak sortzea, inplikazio gehiago lortzeko asmoz, Ekosistemetako Zerbitzuen ikuspegitik.

Adibideak:

- Berraktibatu +. Aktibatu + programa zabaltu eta indartu egiten da. Herritarrei eta eskola-erkidegoari zuzendutako ekintzak, baliabideen kudeaketa arduratsurako (etxe eta ikastetxe iraunkorrak).
- Laguntza ematea Water Explorer (GAP) programa Bizkaiko ikastetxeetan zabal dadin. Uraren ikuspegiari eta kudeaketa iraunkorrari bultzada ematea ikastetxeetan.
- Natura Modulua. Global Action Plan (GAP) nazioarteko programarekin batera diseinatu beharrekoa. Horren helburua da aipatutako modulua eskola-sisteman eta etxeetan dagoeneko jorratzen diren gaietara (ura, energia, kontsumoa-hondakinak eta mugikortasun iraunkorra) gaineratu dadila.
- Uraren Jaian eta ingurumenarekin zerikusia duten beste ekintzetan parte-hartzea.

Helburu espezifikoak

- Parte hartzeko tresnak eduki, gizarteko hainbat sektoreren ingurumenarekiko inplikazioa eta konpromisoa haztea ahalbidetuko dutenak, arreta berezia eskainiz eskolako sektoreari.
- Ingurumenarekiko konpromisoa hobetu, iraunkortasuna praktikatzeko orduan herritar nabarmen gisa gaituko gaituzten ekintzak gauzatzearen bidez.





Espero diren emaitzak

- Gaiak eta gizarteko aktoreak (ikastetxeak, familiak, elkarteak eta beste eragile batzuk) dibertsifikatu, ingurumenaren alorrean jardunbide egokiei buruzko programetan aritzen direnak.
- Jardueratan, programatan edo proiektutan parte hartzen duten eta iraunkortasunaren ikuspegitik ekintza positiboak gauzatzen dituzten pertsonen kopurua areagotu.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Ingurugela
- Global Action Plan

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

Honako programa hauetan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua:

- Aktibatu+ /Berraktibatu + programa
- *Water Explorer* programa
- Natura Modulua
- Aktibatu+ /Berraktibatu+ programan parte hartzen duten familien kopurua
- Uraren kontsumoa biztanle bakoitzeko (l/bizt/egun)
- Energia elektrikoaren kontsumoa biztanle bakoitzeko

Aurreikusitako aurrekontua

- 12.600 euro urtean Aktibatu + programarako
- 10.000 euro Natura Modulua diseinatzeko

Izena

4.1.2: Energia iraunkortasunaren paradigma gisa lantzerako bideratutako hezkuntza-programa.

Deskripzioa

Ekimen berritzaile honen asmoa da ikastetxeak ohartu daitezela energiak baliabide maisu gisa duen garrantziaz. Energiak gure bizitzetan betetzen duen tokiari buruzko esperientzia zuzen eta kontziente batetik abiatuta, bere jatorri eta kontsumotik hasi eta ematen dizkigun zerbitzueteraino. Honako hau litzateke asmoa: eskola-erki-degoak eta tokiko agintariek energiaren kudeaketa iraunkorrerako igarotzea erraztuko duten ikaskuntzak eta trebakuntzak jorratu ditzatela.

Adibideak:

- Energiaren gaia Eskolako Agenda 21 programan landu beharreko gai gisa indartu.
- Euronet 50/50 max. Eraikin publikoetan energia aurreztu dadila bultzatzeko sare itxurako proiektu europarra. Programa horretan ikastetxeek eta tokiko agintariek parte hartzen dute. Material didaktikoen eta beste baliabide batzuen dibulgazioa. Esperientziak trukatzearen balioa.
- Halaber, Aktibatu + (etorkizunean Berraktibatu + izango dena) programako moduluetako batek energiaren gaia jorratzen du.

Helburu espezifikoak

- Tresnaz eta baliabidez hornitu, energiaren kudeaketa iraunkorragoari buruz ikasketa eta trebakuntza aktiboak egin ahal izateko.
- Ikastetxeen eta tokiko erakunde publikoen kopurua areagotu, energiaren kudeaketa integralarekin eta haren erabilera ahalik eta eraginkor eta iraunkorrenarekin konprometituta daudenak.

Espero diren emaitzak

- Ahalik eta ikastetxe gehien batu, euren zentroko programetan eta proiektuetan energia lantzen dutenak (udal-ekin eta tokiko beste erakunde batzuekin batera).
- Energiaren kudeaketari buruzko material egokiak argitaratu (energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna eta ingurumenarekiko eragin negatiboaren murrizketa) eskola-erki-degoarentzat eta tokiko administrazioarentzat.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Ingurugela
- Bartzelonako Diputazioa

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Bizkaian dauden Euronet 50/50 max sareko ikastetxeen kopurua
- Inplikaturak dauden udalen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 10.000 euro

Izena

4.1.3: Lehen sektoreko merkatuan eskuragarri dauden ondasun eta zerbitzu iraunkorrak eta solidarioak sustatzeko jardunaldiak lehen, eta haiek ikusarazteko moduak (etiketak eta publizitatea).

Deskripzioa

- Baso-kudeaketa iraunkorrari buruzko jardunaldiak. Egur ziurtatua.
- Nekazaritzako ingurumen arloko neurriei buruzko zein nekazaritzako eta abeltzaintzako kudeaketa iraunkorrari buruzko prestakuntza-jardunaldiak.
- Bertako abere-arrazei buruzko jardunaldiak.

Helburu espezifikoak

- Baso-jabeei prestakuntza eman egur ziurtatua ekoiztearen onuren gainean.
- Abeltzainei prestakuntza eta informazioa eman nekazaritzako ingurumen arloko programetako laguntzen nondik norakoei eta helburuei buruz, baita betebeharreko konpromisoiei buruz ere.

Espero diren emaitzak

- Baso-masa areagotu, eta basogintzaren eta abeltzaintzaren kudeaketa iraunkorreko konpromisoekin bat eginguten duten abeltzainen kopurua areagotu.

Eragile arduradunak

- Baso Zerbitzua
- Abeltzaintza Zerbitzua
- Nekazaritzako Zerbitzua

Gauzatze-datak

- Zehaztu gabe. 2015ean zehar, data desberdinetan eta eskualdeka.

Ebaluazio-adierazlea

- Jardunaldietan parte hartzen duten baso-jabeak eta abeltzainak

Aurreikusitako aurrekontua

- Zuzkidura ekonomikorik gabe

5. LERRO ESTRATEGIKOA

HONDAKINAK, ISURKETAK, EMISIOAK ETA ZARATA GUTXIAGOTZEA

5.1 helburu operatiboa-

Gaikuntza eskaintzea sortzen ditugun hondakinak eta isurketak egoki kudeatzeko, bizimoduak aldatuz horretarako (kontsumo arduratsua).

<p>Izena</p> <p>5.1.1: Hondakinak murrizteko eta gaikako bilketa ezartzeko asmoz, bereziki materia organikoarena (bosgarren edukiontzia, autokonposta egiteko makinak...), Udalek eta mankomunitateek egiten dituzten sentsibilizazio-ekimenei laguntza eman.</p>	
<p>Deskripzioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Herritarrei informazioa emateko planak diseinatzen eta martxan jartzen lagundu, gaikako bilketa hedatzeko xedearekin, materia organikoan arreta berezia jarrita. 	
<p>Helburu espezifikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Hondakinak kudeatzeko garaian, herritarren ezagutza, gaikuntza eta egoki jarduteko modua areagotu daitezten lagundu. Bizkaiko emaitzak hobetu etxeko hondakinen gaineko aurreikuspenari, kudeaketari eta balorazioari dagokienez. 	
<p>Espero diren emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Hondakinen aurreikuspen eta kudeaketa egokia egiten duten herritarren kopurua areagotu. Honako sekuentzia hau barneratu: 1) murriztu sortzeko orduan; 2) berrerabili; 3) birziklatu: frakzioak bereiztea, bilketa erraztuko duena, materia organikoan arreta berezia jarrita. 	
<p>Eragile arduradunak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ingurumen Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia 	<p>Gauzatze-datak</p> <ul style="list-style-type: none"> IHE 2020 egitasmoaren indarraldia
<p>Ebaluazio-adierazlea</p> <ul style="list-style-type: none"> Finantzatutako sentsibilizazio-proiektuen kopurua: Materia organikoa biltzeko sistemak dituzten Bizkaiko udalen ehunekoa 	<p>Aurreikusitako aurrekontua</p> <ul style="list-style-type: none"> 500.000 euro urtean

5.2. helburu operatiboa.-

Gaikuntza eskaintzea eguneroko joan-etorrietan sortzen ditugun isurpenak eta zarata gutxiagotzeko (mugikortasun iraunkorra).

Izena 5.2.1: Mugikortasun iraunkorrarekin eta bizikleta garraibide gisa sustatzearekin lotutako hezkuntza-jarduera berritzaileak, Bizikletaren Foru Estrategiaren barruan proposatutakoak.	
Deskripzioa Bizikletaren erabilpena sustatzeko ikasgela pedagogikoa.	
Helburu espezifikoak <ul style="list-style-type: none">▪ Haurren artean bizikletari buruzko heziketa eman eta hura sustatu.	
Espero diren emaitzak <ul style="list-style-type: none">▪ Haurrei prestakuntza eman bizikletaren erabilpenari eta bide-segurtasunari buruz.	
Eragile arduradunak <ul style="list-style-type: none">▪ Euskadiko Txirindularitza Fundazioa	Gauzatze-datak <ul style="list-style-type: none">▪ Urte osoan zehar
Ebaluazio-adierazlea <ul style="list-style-type: none">▪ Haurren kopurua▪ Jardueren kopurua	Aurreikusitako aurrekontua <ul style="list-style-type: none">▪ 190.000 euro urtean

6. LERRO ESTRATEGIKOA

LURRALDEAREN ERABILERA

2e

6.1. helburu operatiboa-

Eskuragarri jartzea gaiari buruzko heziketa- eta sentsibilizazio-programak, ardatz izango dutenak lurraldearen zain-tza eta paisaiaren eraikuntza eta babesa, lurraldea ondasun komuntzat harturik.

Izena

6.1.1: Natura kontserbazteko ekintzen bizipenen esperimentazioan oinarritutako ikaskuntza-programa (lurraldearen zainketa).

Deskripzioa

Batetik, natura-parkeetan, babestutako biotopoetan eta Natura 2000 sarean egiten diren ingurumenaren alorreko boluntario-programak bultzatu nahi dira; eta, bestetik, Bizkaiko lurraldean gauzatu beharreko ekintzak sendotzeko asmoa dago.

Helburu espezifikoak

- Lurraldearen zainketa bultzatu, bai ingurumenari buruzko parte-hartze tresna gisa, bai lurraldearen ingurumena hobetzeko tresna gisa.

Espero diren emaitzak

- Parte hartzen duten pertsonen, martxan jarritako proiektuen eta eremu geografikoen kopurua handitu, eta Bizkaiko natura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko sustatutako proiektuen aniztasuna areagotu.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Parte-hartzaileen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 12.000 euro urtean

Izena

6.1.2: Prestakuntza-saioak antolatu, bereziki administrazio publikoei zuzendutakoak, baina baita lurraldearen gainean esku-hartzen duten foru-departamentuei ere.

Deskripzioa

Lurzoruaren okupazioa murrizteko eta optimizatzeko beharizanaren gainean kontzientziatu, berataz egiten diren erabileraren aldaketei edota beste zenbait faktoreri lotuta, hainbat estrategia mota osagarriren arteko nahasketaren bidez:

- Hiri-lurzoruen berrerabilpena lehenetsi beste lurzoru mota batzuen aurrean.
- Landa-lurzoruak espazio urbanizagarri gisa berriz kalifikatzea murriztu, haiek kontserbatzeko.
- Behar ez diren edo/eta kudeatu ezin daitezkeen lurzoruak desklasifikatzea planteatu.

Helburu espezifikoak

- Udalak eta foru-departamentuak kontzientziatu aipatutako gaiaren edota lehentasunen gainean, segimendu bat egiteko moduak ezarriz.

Espero diren emaitzak

- Lurzoruaren kontsumoa murriztu eta behar ez den lurzoru desklasifikatu.
- Eraikitako ondarea optimizatu.

Eragile arduradunak

- Udal Planeamendu eta Lurralde Antolamendu sailetako iraunkortasun-eragileak

Gauzatze-datak

- 2016eko lehenengo hiruhilekoa; 8 saio udalekin eta beste bat Aldundiko Sailentzat

Ebaluazio-adierazlea

- Hiritarra eta urbanizagarria izatetik desklasifikatu den lurzoruaren azalera
- Lurzoru urbanizaezina areagotzea

Aurreikusitako aurrekontua

- Idazkaritza teknikoko lanetarako eta jarraipenerako laguntza teknikoak, kontratatzerako unean zehaztu beharrekoak.

DIBERTSITATEAREN ALDE ETA ONGIZATE INTEGRALEAN OINARRITUTAKO GIZARTE EREDU BIDEZKO ETA INKLUSIBO BAT TRANSMITITZEKO KONPROMISOA

2e

7. LERRO ESTRATEGIKOA

EKINTZARAKO PARTE-HARTZEA

7.1. helburu operatiboa-

Parte hartzeko prozesu irekiak hobetzeko ekintzak definitzea.

Izena

7.1.1: Iraunkortasunaren aldeko Bizkaiko Gazteen Foroa.

Deskripzioa

Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako agintarien entzunaldia, Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen duten ikastetxeen konpromisoak eta proposamenak ezagutzeko.

Helburu espezifikoak

- Zuzenean ezagutu ikastetxeek iraunkortasunaren alorrean (Eskolako Agenda 21 programaren esparruaren barruan) garatzen dituzten proiektuen emaitzak.
- Ikasleek, irakasleekin batera, ezagutu ditzatela zein diren administrazio publikoek (planteatu zaizkien kezken eta eskarien aurrean) martxan jarritako ekintzak.

Espero diren emaitzak

- Komunikazio-kanal egonkorra ezarri Eskolako Agenda 21ean parte hartzen duten ikastetxeen eta hurbileko administrazio publikoen artean (Udalak, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza). Udaletan duela hamar urtetik hona erregularitasunez egiten dira entzunaldi publikoak.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Ingurugela

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Forora bertaratutako pertsonen asebetetze-maila

Aurreikusitako aurrekontua

- 10.000 euro urtean

Izena

7.1.2: Iraunkortasunerako, boluntarioen eta gizarte parte hartzailetzaren hezkuntzaren sektoreko antolakuntzen zabalkuntza.

Deskripzioa

- Hitzarmena EDE Fundazioarekin (bolunta).
- Hitzarmena EDE Fundazioarekin (Hirugarren Sektorearen Behatokia).
- Hitzarmena EAPN Euskadi erakundearekin (Pobreziaren eta Gizarte-Bazterkeriaren Bizkaiko Foru behatokia).

Bizkaiko gizartearen foroak, mahaiak eta behatokiak:

- Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.
- Haurren Behatokia.
- Genero Indarkeriaren Behatokia.
- Pobreziaren eta Gizarte-Bazterkeriaren Behatokia.
- Familiaren Euskal Kontseilua.
- Hirugarren Sektorearen Behatokia.
- Adineko Pertsonen Kontseilua.

Helburu zehatzak

- Boluntarioak eta gizarte partaidetza sustatzea eta ezagutzera ematea.

Itzaroten diren emaitzak

- Bizkaiko herritarrek sektore honetako antolakuntzak ezagutzea lortzea.

Erantzukizuna duten eragileak

- Gizarte Ekintza

Egiteko datak

- 2015

Ebaluazioaren adierazlea

- Zabalkuntzako jardueren kopurua

Zenbatetsi den aurrekontua

- 400.000 euro

7.2. helburu operatiboa-

Iraunkortasunerako Hezkuntzari atxikitako kolektiboei parte hartzeko bide berriak ziurtatuko dizkieten berariazko estrategiak zehaztea.

<p>Izena 7.2.1: Norberaren Agenda 21. Iraunkortasunarekin dudan konpromisoa.</p>	
<p>Deskripzioa Ekimen berritzaile honen asmoa da pertsoneri jarduteko aukera-sorta bat eskaintzea, bizimodu iraunkorrekiko euren konpromisoa areagotzen lagunduko diena. Aipatutako ekintzetan neurrizko inplikazioa edota inplikazio ez hain zorrotza egon daiteke jardunbide egokiak gauzatzeko garaian, baina baita oso konpromiso altua ere. Azkenik, autoebaluazio baten bidez, tresna erabiltzen duen pertsonak iraunkortasunarekiko daukan konpromiso-maila neurtu ahal izango du.</p>	
<p>Helburu espezifikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsoneri lagundu bizimodu iraunkor bat aurkitu eta berataz gozatu dezaten, ekintza positiboen eta jardunbide egokien ikuspuntutik. ▪ Iraunkortasunaren kultura hedatu herritarren artean, parte hartzearen bidez eta sare sozialetan esperientziak partekatuz. 	
<p>Espero diren emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsonen ongizatea handitu, koherentzia pertsonala, kohesio soziala, ondarearen ezagutza eta etxeko ekonomiaren hobekuntza areagotuz, eta, aldi berean, ingurumenarekiko eta inguru sozialarekiko eragin negatiboa murriztuz. 	
<p>Eragile arduradunak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingurumen Zuzendaritza Nagusia 	<p>Gauzatze-datak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2016. urtetik aurrera
<p>Ebaluazio-adierazlea</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Parte-hartzaileen kopurua 	<p>Aurreikusitako aurrekontua</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 10.000 euro

8. LERRO ESTRATEGIKOA

BIZI KALITATEAREN BIKAITASUNA OHITURA OSASUNGARRIEN ETA PREBENTZIOZKO JOKAMOLDEEN BIDEZ

8.1. helburu operatiboa-

Nutrizio-heziketa sustatzea etxean, eskolan eta komunitatean.

Izena

8.1.1: Ikastetxeetan tokiko elikagaien kontsumoari, osasunari eta iraunkortasunari buruzko hezkuntza-ekimenak eta ekintza orientatzaileak.

Deskripzioa

Eskola Agenda 21 programaren eta 2020ko Ingurumeneko Esparru Programaren barruan, tokiko elikagaietara jotzen, eta, aldi berean, materia hori tresna pedagogiko eta baliabide didaktiko gisa erabiltzen dituzten eskola-jantokiei buruzko esperientziak bildu eta ezagutzera emango dira.

Helburu espezifikoak

- Eskola-jantokien jardunbide egokiak ezagutzera eman, Bizkaiko ikastetxeen sareak beste urrats bat eman ahal izan dezan iraunkortasunarekin duen konpromisoarekiko.
- Ekonomia zirkularraren eta tokiko ekonomiaren ondorio positiboak ezagutarazi.
- Mezu esanguratsuak zabaldu honako hauek duten harremanari buruz: tokiko elikagaiak, nekazaritza-jarduerak, nekazaritzako bioaniztasunak eta espezie exotiko inbaditzaileen kontrolak.
- Elikadurarekin, osasunarekin eta ongizatearekin lotutako balioak ezagutzera eman.

Espero diren emaitzak

- Bizkaiko ikastetxeen zerrenda areagotu, non kalitatezko tokiko elikagaiak erabiltzeaz gain, alderdi hori euren programazioan eta hezkuntza-praktikan islatzen duten.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Ingurugela

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Jantokian tokiko produktuak erabiltzen dituzten ikastetxeen kopurua
- Bizkaian nekazaritza eta abeltzaintza ekologikora bideratutako azalera

Aurreikusitako aurrekontua

- 3.000 euro urtean

8.2. helburu operatiboa-

Bizimodu osasungarria sustatzea etxean, eskolan zein komunitatean.

<p>Izena 8.2.1: Entrenatzaileentzako eta kirol-monitoreentzako prestakuntza, osasun- eta iraunkortasun-eragile gisa trebatzeko.</p>	
<p>Deskripzioa Osasunari eta iraunkortasunari buruzko edukiak garatu gaur egun martxan dauden eta entrenatzaileei eta kirol-monitoreei zuzenduta dauden prestakuntza-programetan (“Prestakuntza-pilulak” eta “Kirol-monitore ikastaroa”). Eduki posibleak: elikadura egokia, jardunbide segurua, balio positiboen igorpena, ohitura osasuntsuak gorde-tzea (ohitura higienikoak, elikadura-hezkuntza, drogazaletasunen edota mendekotasuna sortzen duten beste jokaera batzuen prebentzioa...), kirol-produktuen eta -zerbitzuen kontsumo arduratsua.</p>	
<p>Helburu espezifikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Entrenatzaileak eta kirol-monitoreak sentsibilizatu eta haiei tresnak eman, euren zeregin profesionalean osasun-eragile gisa zein ohitura iraunkorren eragile gisa jardun ahal izan dezaten. Kirol-produktuen eta -zerbitzuen kontsumo arduratsua sustatu. 	
<p>Espero diren emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Programa horietan parte hartzen duten pertsona guztiek euren lan-esparruan osasunari eta iraunkortasunari buruzko beharrezkoa den prestakuntza izan dezatela. 	
<p>Eragile arduradunak</p> <ul style="list-style-type: none"> Kultura Saila 	<p>Gauzatze-datak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasturte berriaren hasiera, 2015eko azaroa
<p>Ebaluazio-adierazlea</p> <ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza hau jaso duten pertsonen kopurua 	<p>Aurreikusitako aurrekontua</p> <ul style="list-style-type: none"> 2.500 euro

Izena

8.2.2: “Kirola osasunaren bidea” izeneko sentsibilizazio-kanpaina, bai kirol-jarduera fisikoaren abantailei buruzkoa, bai hura praktikatzearen gaineko ohitura iraunkor egokiei buruzkoa.

Deskripzioa

“Kirola osasunaren bidea” kanpainak gaur egun zenbait ekintza garatzen ditu, hazi egingo direnak Programa honen indarraldiko urteetan: besteak beste, iraunkortasunarekin lotutako gai buruzko argitalpenen eta hitzaldien kopurua areagotuko da, kirol-medikuntzako unitate mugikorrak kirolerako mediku-azterketak egin eta aholkularitza lanak emango dizkio gero eta jende gehiagori, eta Ortuellan egiten ari den ohitura osasuntsuak hartzeko programa pilotua beste udalerrri batzuetara hedatuko da, baita Ortuellako beste talde batzuegana ere.

Helburu espezifikoak

- Bizkaiko Lurralde Historikoko pertsonak trebatu, bizimodu-ohitura osasuntsuen gaineko erabakiak hartzeko.

Espero diren emaitzak

- Programa horietan parte hartzen duten pertsonen kopurua areagotu, baita prestakuntzarako tresnen kopurua ere.

Eragile arduradunak

- Kultura Saila

Gauzatze-datak

- 2015ean hasi

Ebaluazio-adierazlea

- Argitalpenen eta hitzaldien kopurua, eta bertaratu-tako pertsonena.
- Unitate mugikorrak aztertu eta aholkatu dituen pertsonen kopurua.
- Esperientzia pilotua garatzen den udalerrien kopurua, garatutako programen kopurua eta parte hartzen duten pertsonen kopurua.

Aurreikusitako aurrekontua

- 50.000 euro

Izena

8.2.3: Osasungiroa plataformaren eta Osasunsarea sarearen zabalkuntza iraunkortasuna eta osasuna sustatzearen ondoretarako.

Deskripzioa

“Menos pastillas, más zapatillas” bezalako ekimenak sustatzea, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko ibilaldiak.

Helburu zehatzak

- Osasuna eta belaunaldien arteko harremanak sustatzea.

Itxaroten diren emaitzak

- Bizkaiko herritarrek Osasungiroa eta Osasunsarea ezagutzea eta burutzen dituzten jardueretan parte hartzea.

Erantzukizuna duten eragileak

- Gizarte Ekintza

Egiteko datak

- 2015

Ebaluazioaren adierazlea

- Zabalkuntzako jardueren kopurua

Zenbatetsi den aurrekontua

- 3.000 euro

Izena

8.2.4: Hirigintza-plangintzako profesionaleri zuzendutako prestakuntza da, eta udalerrri osasuntsuaren, atseginarene eta iraunkorraren irizpideak aintzat hartuta planifikatzeko beharrianaz kontzientziatzera bideratuta dago.

Deskripzioa

Honako helburu hauek erdiesteko estrategiak eta jarraibideak:

- Gune berdeak dituzten hiriak
- Motorrik gabeko mugikortasuna: oinezkoena eta bizikletena
- Konfort akustikoa
- Irigarritasuna
- Hiri-paisaia eta hiri-ingurukoa

Helburu espezifikoak

- Udalak eta foru-departamentuak kontzientziatu aipatutako gaiaren edota lehentasunen gainean, segimendu bat egiteko moduak ezarriz.

Espero diren emaitzak

- Hiri atseginoak eta osasuntsuagoak lortu, dagoeneko badauden esparruak hobetuz eta etorkizuna egoki diseinatuz.

Eragile arduradunak

- Iraunkortasun-eragileak

Gauzatze-datak

- 2016eko lehenengo hiruhilekoa; 8 saio udalekin eta beste bat Aldundiko Sailentzat

Ebaluazio-adierazlea

- Espazio askeen areagotzea
- Bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbideen areagotzea
- Konfort akustikoko guneetako enplegua

Aurreikusitako aurrekontua

- Idazkaritza teknikoko lanetarako eta jarraipenerako laguntza teknikoak, kontratatzerako unean zehaztu beharrekoak.

9. LERRO ESTRATEGIKOA

GIZARTE ASKOTARIKOA, BIDEZKOA ETA SOLIDARIOA

9.1. helburu operatiboa-

Balioen aldaketa sustatzea, sexuaren araberako gizarte-rolak eta estereotipoak desagerraraziz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzukidetasuna bultzatuz.

Izena 9.1.1: Genero ikuspegitik abiatuta zaintzaren arloan lan egiten duen pertsonalaren prestakuntza jardueren diseinu, plangintza, dinamizazio eta ebaluazioan.	
Deskripzioa Generoari lotuta dauden alderdietan pertsona zaintzaileen lanen eraginari buruzko azterlana egitea litzateke.	
Helburu zehatzak <ul style="list-style-type: none">▪ Pertsona zaintzaileek generoaren arloan duten eragina ezagutzea.	
Itxaroten diren emaitzak <ul style="list-style-type: none">▪ Eraginari buruzko azterlana egitea.	
Erantzukizuna duten eragileak <ul style="list-style-type: none">▪ Gizarte Ekintza	Egiteko datak <ul style="list-style-type: none">▪ Datak jarri gabe.
Ebaluazioaren adierazlea <ul style="list-style-type: none">▪ Azterlanaren emaitza.	Zenbatetsi den aurrekontua <ul style="list-style-type: none">▪ 18.000 euro

Izena 9.1.2: Praktika onen bilketa eta prestakuntza hirigintzako talde profesionalentzat, hirigintza eta lurraldearen hobekuntzan, diseinuan eta plangintzan generoaren ikuspegia sartuz.	
Deskripzioa Hiri Adeitsuen proiektua abian jartzea.	
Helburu zehatzak <ul style="list-style-type: none">▪ Lurralde Adeitsuaren eraikuntza.	
Itxaroten diren emaitzak <ul style="list-style-type: none">▪ Prestakuntzako ekintzak egitea.	
Erantzukizuna duten eragileak <ul style="list-style-type: none">▪ Gizarte Ekintza	Egiteko datak <ul style="list-style-type: none">▪ Datak jarri gabe.
Ebaluazioaren adierazlea <ul style="list-style-type: none">▪ Prestakuntzako ekintzen kopurua.▪ Prestakuntzan parte hartzen duten pertsonen kopurua.	Zenbatetsi den aurrekontua <ul style="list-style-type: none">▪ 20.000 euro

9.2. helburu operatiboa.-

Genero-indarkeria desagerrarazteko hezte.

<p>Izena 9.2.1: Emakumeen aurkako indarkeriaren ezabaketan gizartearen kontzientziatzea eta parte hartze aktiboa sustatzea.</p>	
<p>Deskripzioa "Tartekari Sarea" gizarte laguntzako sareen kudeaketa eta finkapena.</p>	
<p>Helburu zehatzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizartea hain larria den emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari dagokionez sentiberatzen laguntzea. ▪ Hori ezabatzeko gizarte zibilak duen parte hartzearen garrantzia ikustaraztea. ▪ Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzea. ▪ Biktimak diren emakumeei laguntza eta abegi hori eskaini ditzaketen bitarteko espezializatuekiko laguntza eskaintzea. ▪ Emakume horiek hurbilen duten giroan integratzea eta horien gizarte parte hartzea erraztea. 	
<p>Itxaroten diren emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte zibila emakumeen aurkako indarkeriaren ezabaketan jardutea lortzea. 	
<p>Erantzukizuna duten eragileak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Ekintza 	<p>Egiteko datak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2015
<p>Ebaluazioaren adierazlea</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakunde laguntzaileen kopurua. 	<p>Zenbatetsi den aurrekontua</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 468.700 euro

Izena

9.2.2: Beldur Barik programaren gaineko ezagutza zabaldu. Genero indarkeriari buruzko film laburrak eta beste hainbat komunikazio-baliabide.

Deskripzioa

Emakunderekin lankidetzeta-hitzarmena Beldur Barik programaren gainean. Programa hori erakunde arteko programa bat da, indarkeria sexistari aurre egitea helburu duena eta gazteriarri zuzenduta dagoena.

Honako hauek dira jorratzen diren jarduerak:

- Materialak eskuragarri jarri
- Topaketa
- Beldur Barik lehiaketa
- Etab.

Helburu espezifikoak

- Euskadiko gazteria "Beldur barik" jarreraren gainean sentsibilizatu, indarkeria sexistari aurre egin, emakumeenganako indarkeriaren aurka sentsibilizatu.

Espero diren emaitzak

- Gizarte zibila emakumeen aurkako indarkeriaren ezabaketan jardutea lortzea.

Eragile arduradunak

- Berdintasunerako Zuzendaritza eta Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua (Gizarte Ekintza)

Gauzatze-datak

- Urte guztian zehar, baina bereziki azaroaren 25aren inguruan.

Ebaluazio-adierazlea

- Parte hartzen duten udalerrien kopurua
- Parte hartzen duten gazteen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 35.000 euro

9.3. helburu operatiboa-

Gizarte-inklusioaren alde heztea eta sentsibilizatzea.

Izena 9.3.1: Ezintasunak dituzten pertsonen gizarte inklusioa lortzeko ekitaldiak antolatzearen beharrianari buruz sentiberatzea (ONCE, FEKOOR, etab.).	
Deskripzioa <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kirol federatua ezinduak diren pertsonentzat. ▪ Langarik gabeko azoka. ▪ Basauriko bilera paralinpikoa. ▪ Ezinduen egunaren ospakizuna. 	
Helburu zehatzak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte inklusioa lortzeko ekitaldiak sustatzea. 	
Itxaroten diren emaitzak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte inklusioa sustatzeko era guztietako ekitaldiak laguntzea. 	
Erantzukizuna duten eragileak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Ekintza 	Egiteko datak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Datak jarri gabe.
Ebaluazioaren adierazlea <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekitaldien kopurua. 	Zenbatetsi den aurrekontua <ul style="list-style-type: none"> ▪ 75.000 euro

Izena 9.3.2: Herritarrei gizarte zerbitzuei buruzko hezkuntzako-laguntzako informazioa ematea.	
Deskripzioa <ul style="list-style-type: none"> ▪ Argitalpenak webean. ▪ Call-Centerra. ▪ Azterlanak eta memoriak. ▪ Programa-zerbitzuak-prestazioak. 	
Helburu zehatzak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Laguntza programei buruzko informazioa ematea eta horiek zabaltzea. 	
Itxaroten diren emaitzak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarrek Bizkaian laguntza egitarauari buruz duten ezagutza areagotzea. 	
Erantzukizuna duten eragileak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Ekintza 	Egiteko datak <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2015
Ebaluazioaren adierazlea <ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioaren arloko ekintzen kopurua. 	Zenbatetsi den aurrekontua <ul style="list-style-type: none"> ▪ 70.000 euro

Izena

9.3.3: Iraunkortasunerako hezkuntzako komunikazio-tresnak egokitu beharrian bereziak dituzten pertsonentzat.

Deskripzioa

Etengabe eboluzionatzen ari diren Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) ahalbidetu egiten dute informazioa igortzeko erabiltzen diren baliabideak doitzea. Aldi berean, beharrezkoa denean, egokiak irizten diren euskarri fisikoak erabiliko dira. Ekimen berritzaile hori garatzeak ahalbidetu egingo du komunikazio-metodoak eta -baliabideak gizatalde berezientzat egokitzea.

Helburu espezifikoak

- Beharrian bereziak (ikusmena, entzumena, arreta-arazoak...) dituzten pertsonengana hurbildu iraunkortasunerako hezkuntzaren esparruko informazioa eta ekimenak.

Espero diren emaitzak

- Komunikazio-tresnak hobetu eta iraunkortasunerako hezkuntza herritar guztiengana hurbiltzea ahalbidetu.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Gizarte Ekintza Saila

Gauzatze-datak

- 2016-2020

Ebaluazio-adierazlea

- Egokitutako eta prestatutako euskarrien eta baliabideen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 12.000 euro urtean

9.4. helburu operatiboa-

Arriskuen prebentzioarako eta adinekoen eta mendekotasundunen zainketarako heztea.

<p>Izena 9.4.1: Zabalkuntza handiagoa ematea adineko pertsonen programei.</p>	
<p>Deskripzioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Adineko pertsonen arteko elkarteen eta boluntaren arteko jarduketa planak zabaltzea. Nagusi Txartela. Zerbitzu Juridikoa. Prestakuntza jarduerak ZAINDUZ Programaren barruan. Lehiaketa literarioa eta pintura eta argazki lehiaketa adineko pertsonentzat. Adineko Pertsonen Kontseiluari buruzko ezagutza zabaltzea adineko pertsonen parte hartzea dinamizatze-ko-bideratzeko elementua delako. 	
<p>Helburu zehatzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Zahartze aktiboa sustatzea. 	
<p>Itxaroten diren emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Lehiaketetan 80 pertsona parte hartzaile; aholkularitza juridikoan 250 pertsona parte hartzaile; Txartelari dagokionez, 8.000. 	
<p>Erantzukizuna duten eragileak</p> <ul style="list-style-type: none"> Gizarte Ekintza 	<p>Egiteko datak</p> <ul style="list-style-type: none"> 2015
<p>Ebaluazioaren adierazlea</p> <ul style="list-style-type: none"> Adineko pertsonentzat diren programetan parte hartuko dutenen kopurua. 	<p>Zenbatetsi den aurrekontua</p> <ul style="list-style-type: none"> 110.000 euro

10. LERRO ESTRATEGIKOA

NOLA JO ONGIZATEKO GIZARTE BATERANTZ

10.1. helburu operatiboa-

Ekosistemen zerbitzu, ekonomia berde, gizarte-berrikuntza eta garapen iraunkorrezko ezagutza handitzea.

Izena

10.1.1: Informazio- eta prestakuntza-programa, honako alderdi hauek eskaintzen dituzten aukerei buruzkoa: ekosistemetako zerbitzuen eta ekonomia berdearen ikuspuntuak, berrikuntza sozialak eta iraunkortasunaren ikuspegi integralak.

Deskripzioa

Informazioak, prestakuntza-jardunaldiak eta topaketak prestatuko dira, ekosistemetako zerbitzuen eta ekonomia berdearen arteko loturari buruzkoak izango direnak. Ekonomia berdeaz hitz egitean, naturaren erabilera arduratsuz ari gara (ekoberrikuntza, ekodiseinua, enplegu berdea, erosketa eta kontratazio berdea), betiere iraunkortasunaren ikuspegi integral batetik begiratuta.

Helburu espezifikoak

- Ekosistemetako zerbitzuen, ekonomia berdearen eta gizartearen ongizatearen artean dagoen harremana ezagutarazi eta hari buruzko prestakuntza eman, iraunkortasunera bidean aurrerapausoak ematen dituen garapen iraunkorreko prozesu baten barruan.

Espero diren emaitzak

- “Gizartearen ongizaterako ekosistemetako zerbitzuak” deritzon kontzeptuaren mezua hedatu sektore profesionalean, eta trebakuntza eman mezu hori berrikuntza berdearen ikuspegi berri batean sustatu dezaten.

Eragile arduradunak

- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

Eragile laguntzaileak

- Garapen iraunkorrari eta ingurumenaren gaineko hezkuntzari buruzko UNESCOren katedra (UPV/EHU)

Gauzatze-datak

- IHE 2020 egitasmoaren indarraldia

Ebaluazio-adierazlea

- Prestatutako pertsonen kopurua

Aurreikusitako aurrekontua

- 6.000 euro urtean

10.2. helburu operatiboa-

Iraunkortasunerako hezkuntzan eta heziketan tresna didaktikoak izan daitezkeen kontzeptuak, metodologiak eta baliabideak sustatzea.

<p>Izena 10.2.1: Hezkuntza-metodologia berriekin esperimentatu eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek -IKT- (Internet, teknologia mugikorra) eta sare bidezko lanarekin uztartu, iraunkortasunerako hezkuntza-sistema berriak bultzatzeko asmoz.</p>	
<p>Deskripzioa Helburua honako hau da: ikertu, diseinatu eta praktikara eraman iraunkortasunerako hezkuntzako modelo eta teknika berritzaileak, bai hezkuntza- eta gizarte-arloko ikuspegi eta metodologia berrien esparruan (“Haurren hiria”, “Hiri adimentsuak”, “SlowCities”, “Hiri atseginak”, “Konfiantzaren pedagogia”, “Ikaskuntza-Zerbitzua”...), bai informazioa hedatzea laguntzen duten tresnen esparruan zein Interneten eta sare sozialetan komunikatzea eta parte-hartzea ahalbidetzen duten baliabideen esparruan ere.</p>	
<p>Helburu espezifikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Egiteko modu berriak, metodologiak eta ikaskuntza uztartu, IKTekin izandako esperientzian oinarrituta. ▪ IHE 2020 egitasmoaren jardueretara ikuspegi eta baliabide berritzaile horiek gaineratu. 	
<p>Espero diren emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrerapausoak eman hezkuntza-metodologia berritzaileak atxikitzeko prozesuan, baita helburu horretarako erabiltzen diren tresnekin ere. ▪ Erakargarrienak diren hizkuntzak, euskarriak, programa informatikoak eta elektronikoak erabili (bereziki haur-errentzat, nerabeentzat eta gazteentzat erakargarrienak direnak). 	
<p>Eragile arduradunak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingurumen Zuzendaritza Nagusia <p>Eragile laguntzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingurugela ▪ LANTIK 	<p>Gauzatze-datak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ IHE 2020 egitasmoaren indarraldia
<p>Ebaluazio-adierazlea</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Esperientzien kopurua 	<p>Aurreikusitako aurrekontua</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 6.000 euro

3e

3. ERANSKINA: Ekimen berritzaileen laburpena, Sail sustatzailearen arabera

3e

GIZARTE EKINTZA SAILA

3.2.1 ekimen berritzailea: Belaunaldi arteko argazki-rallya

7.1.2 ekimen berritzailea: IHaren alorreko erakundeen, boluntariotzaren eta gizarte parte-hartzearen berri zabaltzea.

8.2.3 ekimen berritzailea: Iraunkortasuna eta osasuna sustatzen dituzten Osasun Giroa plataformaren eta Osasun Sarearen berri zabaltzea.

9.1.1 ekimen berritzailea: Genero ikuspegitik abiatuta zaintzaren arloan lan egiten duen pertsonalaren prestakuntza jardueren diseinu, plangintza, dinamizazio eta ebaluazioan.

9.1.2 ekimen berritzailea: Jokamolde egokiak bil-tzea eta hirigintzako profesionalen taldeei prestakuntza eskaintzea hiri- nahiz lurralde-hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeko eraz.

9.2.1 ekimen berritzailea: Emakumeen aurkako indarkeriaren ezabaketan gizartearen kontzientziatzea eta parte hartze aktiboa sustatzea.

9.2.2 ekimen berritzailea: Beldur Barik programaren ezagutza zabaltzea. Genero-indarkeriari buruzko film laburrak eta bestelako komunikazio-baliabideak.

9.3.1 ekimen berritzailea: Ezgaitasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko ekimenak antolatu beharraz sentsibilizatzea (ONCE, FEKOOR).

9.3.2 ekimen berritzailea: Herritarrei gizarte zerbitzuei buruzko hezkuntzako-laguntzako informazioa ematea.

9.4.1 ekimen berritzailea: Zabalkuntza handiagoa ematea adineko pertsonen programei.

HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

5.2.1 ekimen berritzailea: Mugikortasun iraunkorra-rekin eta bizikleta garraio-bide gisa sustatzearekin lotutako hezkuntza-jarduera berritzaileak, Bizikletaren Foru Estrategiaren barruan proposatutakoak.

INGURUMEN SAILA

1.1.1 ekimen berritzailea: Bizkaiko Foru Aldundiaren iraunkortasunerako hezkuntza-eragileen foroa sortzea, 2020 IHEren dinamizatzaile gisa jardun dezan.

1.1.2 ekimen berritzailea: Bizkaia 21 atariaren bitartez, IHarekin zerikusia duen informazioa eremu geografiko gehiagotara eta komunikaziorako teknologia berrietara zabaltzea.

1.1.3 ekimen berritzailea: Ikus, Ekin eta Iraun. Iraunkortasunerako ikus-entzunezkoak.

1.2.1 ekimen berritzailea: Erakunde arteko eta diziplina anitzeko lantaldea, iraunkortasunerako hezkuntzari buruzkoa.

1.3.2 ekimen berritzailea: Iraunkortasunaren ikaskuntza BFaren jarduera-alor guztietara iritsarazteko baliabideak sortzea.

1.3.3 ekimen berritzailea: Berariazko ekintzak erakundeek zein enpresek garapen iraunkorraren aldeko ekimenei ekin diezaieten.

2.1.1 ekimen berritzailea: Geodibertsitatea gehitzea inguru naturala ezagutarazteko eta haren balioa azpimarratzeko jardueri.

2.1.2 ekimen berritzailea: Biodibertsitatearen, paisaien, natura zaindu beharraren eta ekosistemen onuren garrantzia azpimarratzeko ekimen berriak garatzea, herritarrek balio horien guztien erabat jakitun egiteko.

2.1.3 ekimen berritzailea: Eskola-programak eta bisitarienezako arreta-jarduerak koordinatzea BFAk nahiz beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten gunen babestuetan.

3.1.3 ekimen berritzailea: Meatzaldeko Kultur eta Ingurumen Parkeko Interpretazio Zentro berriaren heziketa-eskaintza.

4.1.1 ekimen berritzailea: Heziketa-ekintza berriak zabaltzea ekosistemetako zerbitzuak (ura, elikagaiak, energia...) zentzuz eta era solidarioan kontsumitzea eta erabiltzea sustatzeko.

4.1.2 ekimen berritzailea: Heziketa-programa. Helburua: energiaren gaia iraunkortasunaren paradigma gisa lantzea.

5.1.1 ekimen berritzailea: Laguntza ematea udal eta mankomunitateei hondakinak gutxiagotu beharraz sentsibilizatzeko abiatzen dituzten ekimenetan, eta gaikako bilketari dagokionez, bereziki materia organikoa biltzeko programetan: bosgarren edukiontzia, autokonpost-ontziak...).

6.1.1 ekimen berritzailea: Natura kontserbatzeko ekintzen bizipenen esperientziaz oinarritutako ikaskuntza-programa (lurraldearen zainketa).

7.1.1 ekimen berritzailea: Iraunkortasunaren aldeko Gazteen Bizkaiko Foroa.

7.2.1 ekimen berritzailea: Norberaren Agenda 21. Iraunkortasunarekin dudaren konpromisoa.

8.1.1 ekimen berritzailea: Ikastetxeetan tokiko elikagaien kontsumoari, osasunari eta iraunkortasunari buruzko hezkuntza-ekimenak eta ekintza orientatzaileak.

9.3.3 ekimen berritzailea: Iraunkortasunerako heziketa-tresnak behar bereziak dituzten pertsonentzat egokitzea.

10.1.1 ekimen berritzailea: Informazio- eta preskakuntza-programa, honako alderdi hauek eskaintzen dituzten aukerei buruzkoa: ekosistemetako zerbitzuen eta ekonomia berdearen ikuspuntuak, berrikuntza sozialak eta iraunkortasunaren ikuspegi integralak.

10.2.1 ekimen berritzailea: Hezkuntza-metodologia berriekin esperimentatu eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin -IKT- (Internet, teknologia mugikorra) eta sare bidezko lanarekin uztartu, iraunkortasunerako hezkuntza-sistema berriak bultzatzeko asmoz.

KULTURA SAILA

3.1.1 ekimen berritzailea: Programak eta bisitarien-tzako arreta-jarduerak koordinatzea BFAk eta beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten erreferentziatzko kultur ekipamenduetan.

3.1.2 ekimen berritzailea: Heziketa-eskaintza berria kultur ondare materialaren zein immaterialaren interpretazio-guneetan.

8.2.1 ekimen berritzailea: Prestakuntza ematea kirol-entrenatzaile eta -monitoreei osasunaren eta iraunkortasunaren aldeko eragile gisa gaitu daitezzen.

8.2.2 ekimen berritzailea: "Kirola osasunaren bidea" kanpaina, kirol-jarduera fisikoak eta harekin zerikusia duten ohitura iraunkorrek dakartzaten onurez sentibilizatzeko.

LEHENDAKARITZA SAILA

1.3.1 ekimen berritzailea: Iraunkortasunarekin zerikusia izan dezaketen edukiak gehitzea prestakuntza-programari, gaia errazago txarta dadin jarduera-arloetan.

6.1.2 ekimen berritzailea: Prestakuntza-saioak antolatu, bereziki administrazio publikoei zuzendutakoak, baina baita lurraldearen gainean esku-hartzen duten foru-departamentuei ere.

8.2.4 ekimen berritzailea: Hirigintza-planifikazioaren arduradunentzako prestakuntza, udalerrri osasungarri, atsegin eta iraunkorretarako irizpideekin planifikatu beharraz ohartarazteko.

NEKAZARITZA SAILA

4.1.3 ekimen berritzailea: Lehen sektoreko merkatuan eskuragarri dauden ondasun eta zerbitzu iraunkorrrak eta solidarioak sustatzeko jardunaldiak lehen, eta haiek ikusarazteko moduak (etiketak eta publizitatea).

4e

4. ERANSKINA: Iraunkortasunerako Hezkuntzan eragiten duten planak eta estrategiak

4e

Europako Batzordearen **Europa2020 Estrategia** izenekoan hazkunderako hiru lehentasun jasotzen dira, hirurak elkarren indargarriak. **Hazkunde adimentsua** ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia-aren gauzapena da. **Hazkunde iraunkorrerako** bidea, bestetik, baliabideak eraginkorrago baliatzen dituen ekonomia bat da, ekonomia berde eta lehiakorrigo bat, eta **hazkunde integratzaileak**, azkenik, enplegu maila handiari esker arlo ekonomikoan, gizartean eta lurraldean kohesio finkoagoa lortzen duen ekonomia bat bilatzen du.

Hazkunde adimentsuan ageri zaigu, hain zuzen ere, I Harekiko lotura zuzena, ezagutzaren eta berrikuntza-aren sendotzea berresten baitu etorkizuneko hazkunderaren eragiletzat. Lehentasun hori betetzeko, hainbat helburu planteatzen dira; adibidez, hezkuntzaren kalita-

tea jasotzea, ikerketaren emaitzak finkatzea, berrikuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea Europar Batasun osoan zehar eta IKTetatik ahalik eta atarramentu handiena ateratzea.

Zehatzago azterturik, hizpide dugun estrategiak berriz jotzen du beharrezkotzat ikaskuntza ez-formalaren eta informalaren rola aitortzea, ezagutzaren kooperatibak bultzatzea eta hezkuntzaren, enpresaren, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko lokarriak sendotzea. Lehentasunezko egitekotzat dauzka, halaber, herritarrek ikasteko behar diren oinarriko trebetasunetara irispidea eta motibazioa izatea, zehar-gaitasunen garapena sustatzea —horien artean gaurko teknologia digitalak erabiltzeko gaitasunak—, garapen iraunkorra eta herritarren ekimena bultzatzea eta sormenaren, berrikuntzaren eta enpresa-senaren alde jotzea.

EUSKADIN

Ingurumeneko Esparru Programa ingurumen-politika-ara gauzatzeko tresna da, hala jasotzen baita otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean, Programaren jatorria berau. I. Ingurumeneko Esparru Programak 2002-2006 aldia iraun zuen; II. Programa 2007tik 2010erako bitartean aplikatzeko zen, eta III.a, 2011n onartua, 2014an amaitu da.

2014ko abenduan **IV. EAEko Ingurumeneko Esparru Programa** (IEP 2020) aurkeztu zen. Programa parte-hartzeari irekita egon da, esku hartu baitute hura diseinatzeko prozesuan hainbat talde interesdunek, eragile ekonomiko zein sozialek, beste sail eta administrazio publiko batzuek eta herritarrek eurek ere, eta helburu estrategikotzat ditu kapital naturala zaintzea, lehengoratzeta eta kontserbatzea, Euskadiko ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono gutxiko eta baliabideen erabileraren aldetik eraginkor bilakatzea, herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea, udalerrien iraunkortasuna sendotzea, politika koherenteak eta erantzunkidetasun publiko-pribatua ziurtatzea eta, ingurumen arloko jokamolde egokiei esker, Euskadiren rudi ikusgarriago bat lortzea nazioartean.

Zehazki, IEP 2020an Eusko Jaurlaritzak jarraian zerrrendatzen diren arloak jotzen ditu interes berezikotzat, haien inguruan hezuramituko baita Euskadiko ingurumen-politika 2020. urtera bitarteko aldiari:

- Erantzunkidetasun publiko-pribatua: parte hartzen duten era guztietako eragileak ados ageri dira erantzunkidetasunerako moldeak aurkitu behar direlakoan, horien bidez jardule publikoek zein pribatuek jokamolde iraunkoragoetarantz jo dezaten (administrazio eredugarria sustatzea, kontsumo arduratsua sustatzen herritarrengan eta enpresengan...).
- Eraginkortasun energetikoa: euskal gizarteak lehentasunezkoak deritze energiaren kontsumoa esparru guztietan (etxeak, enpresak, aisia-zentroak, erakunde publikoak eta pribatuak) gutxitzeko eta optimizatzekeo neurriak.
- Biodibertsitatea-ekosistemen zerbitzuak: aurrekoi bezala, euskal gizarteak lehentasuna ematen die Euskadiko animalia- zein landare-espezieak babesteari. Herritarrek biodibertsitatearen urritzearen eta ekosistemen zapuztearen aurka borrokatzea proposatzen dute, eta horretarako, kapital naturala

(ekosistemen zerbitzuak) balioa agerian jartzen duten tresna berriak erabiltzea.

- **Lurralde osasungarria:** beharrezkotzat jotzen da ingurumen-arazoei giza osasunari dakarzkien arriskuak gehiago kontrolatzea, batez ere airearen kalitatea, kontsumorako uraren kalitatea, kutsadura akustikoa eta ingurumen-kutsaduraren beste adierazpide batzuk, adibidez erradiazio elektromagnetikoak eta produktu kimikoak.
- **Hezkuntza:** funtsezkotzat hartzen da ingurumen-iraunkortasunaren gaia hezkuntza/prestakuntzaren etapa guztietan ager dadin.
- **Eraginkortasuna** baliabideen kudeaketan: nabarmentzekoa da ekonomia eta ingurumena elkarrekin erlazionatu beharra zikloak itxiz, horrek lehiakortasunari mesede egingo liokeela ere azpimarratuta.

Horiek horrela, IV. Ingurumeneko Esparru Programari sei helburu estrategiko esleitu zaizkio, batzuk (lehenengo laurak) ingurumen-garapen iraunkorra bultzatzeko gaiekin lotuta eta beste batzuk (azken biak) gobernantza-sistemaren ingurukoak.

Helburu bakoitzeko, ekintzen zerrenda luze bat zehazten da ingurumen-politikaren planifikazioari noranzkoa, koherentzia eta koordinazioa emateko; zehazki, 75 ekintza dira, horietako sei giltzarritzat jo litezkeenak, ingurumen-politikaren aldaketarako motorrak izateagatik:

- **Administrazioaren eredarritasuna ingurumenaren alorrean.** Energiaren kontsumoa murriztea eta energia berriztagarrien ekarpen-tasa handitzea.
- **Lurralde osasungarria.** Lurralde-politikan osasunaren eta ingurumenaren aldagaia aintzat hartzea.
- **Fiskalitate ekologikoa.** Herritarrak, enpresak zein instituzioak ingurumenarekiko jokoera ardura-tsuetara bultzatuko lituzkeen zerga-sistema baterantz jotzea.
- **Fabrikazio berdea.** Euskal enpresek baliabideen kontsumoa eta ingurumen-inpaktua beheratzea eta hondakinak aprobetxatzea.
- **Elikadura zirkularra.** Elikagaien balioaren zikloa osorik aprobetxatzea.
- **Azpiegitura berdeak.** Azpiegitura berriak giza-kien eta ingurune naturalaren arteko elkarreagin zuzena errazteko naturagune babestuetan, toki erdi naturaletan, andeatuetan, artifizialduetan...

Deskribatu den ekintzarako esparru orokorraren barruan, ardatz hartuko dugu IHa, Euskadiko Ingurumen Estrategiak planteatzen dituen zereginak aztertuz hipotese dugun alorreko hurrengo erronkak ezagutzeko eta programa berriaren bidez horiei heldu ahal izate-

ko. Ildo horretatik, IEP 2020 aztertutik honako ekintza hauek aurkitzen ditugu, helburu estrategikoen araberrakoak eta IHa-rekin zuzen erlazionatuak:

- **1. Helburu Estrategikoa.** Bertako kapital naturala zaindu, kontserbatu eta lehengoratzeko eta ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak babesteko.
 - Ingurumenaren aldeko informazioa, kontzientzia eta heziketa handitzea herritarrengan, Natura biztanleengana eta etxeetara hurbilduz.
 - Habitata berreskuratzeko jokamolde egokien eskuliburuak prestatzea.
- **2. Helburu Estrategikoa.** Ekonomia lehiakor, berriztaile, karbonoan urri eta baliabideen erabileraren aldetik eraginkor baterantz jotzea.
 - Ekintzailatza sustatzea, ekintzaileei ingurumenaren alorrean aurki ditzaketen enpresa-aukerei buruzko informazioa eta prestakuntza emanez.
- **3. Helburu Estrategikoa.** Herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta zaintzea.
 - Ingurumen-arazoei osasunarentzat ekar ditzaketen kalteen erregistroa eta prebentzioa zorroztzea, ingurumenaren informazio-sistemak hobetuz.
- **4. Helburu Estrategikoa.** Lurralde iraunkorra egitea.
 - Kontsumitzaileentzako informazio-sistemak garatzea.
 - Herritarren azterna ekologikoari buruzko heziketa bultzatzea eta hura murrizteko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak antolatzea.
 - Eskoletako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 estuago koordinatzea.
 - Herritarren parte-hartze prozesuak indartzea udalerrietan.
- **5. Helburu Estrategikoa.** Politika koherenteagoak lortzea, ingurumenaren alorreko ekimenen integrazioaren alde.
 - Parte-hartzerako sistema dinamiko eta malguak sortzea eta, era horretan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKTak) eta sare sozialak baliatuz, erabakiak hartzeko orduan baliagarri den informazio-jario eraginkorra lortzeko.
 - Ingurumenaren informazio-sistema partekatu bat bultzatzea datuen bilketa, kudeaketa

eta bateratzea arrazionalizatzeko eta modernizatzeko eta beste gai batzuei ere heltzeko aukerak izateko.

- Iraunkortasunaren aldeko ingurumen-heziketarako Estrategia prestatzea.
 - Agenda 21 Lanbide Heziketako ikastetxeetan bultzatzea, Eskoletako Agenda 21ekin koordinatuta.
 - Euskadiko gizarteak ingurumenaz duen ezagutza mailaren diagnostikoa osatzeko lan egitea eta, bereziki, iraunkortasunaren aldeko ikuspegia unibertsitate-ikasketetara eramaten ahalegintzea.
 - IKTak eta sareko lana ahalik eta ondoen baliatzea ingurumen-heziketarako sistema berritzaileak bultzatzeko.
 - Ingurumen-heziketa antzeko interes eta beharrak dituzten herritarren multzoei egokitzeko jardutea, pertsonen bizitzan zeharreko prestakuntzari erreparatuz.
 - Ingurumenaren alorreko heziketa-gaitasunak garatzea.
- **6. Helburu Estrategikoa.** Euskadiren nazioarteko irudiaren eta arduraren alde laguntzea.
- Euskal gazteek iraunkortasuna bultzatzeko eta gaiaz hezteko programetan parte har dezaten sustatzea.

Badira, IHRako helburu eta ekintzen artean, **Euskadiko Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailea**

2020rekin erlazioa dutenak ere. Planaren bidez mugikortasun-baliabide iraunkorrenak bultzatu eta norberaren autoaren erabilera murriztatu nahi da, horretarako mugikortasun iraunkorraren gaia txertatuz eskola-curriculumean eta mugikortasun-kudeatzaileen eta -teknikarien prestakuntza aberastuz. Ibilgailu pribatuaren erabilera egokia eta energia-iturri iraunkorrenen aukera bultzatzeko, heziketa eta Internet planteatzen dira esperientzia berriak martxan jartzeko plataforma gisa, mugikortasun-sistemarekin zerkusia duten I+G+b jarduerak (ITS) ahaztu gabe.

Erkidego mailan jarraituz, **Geodibertsitatearen Estrategia 2020** dokumentuan geodibertsitatea eta ondare geologikoa interpretatzeko eta balioesteko ekipamenduak zehaztea eta egokitzea proposatzen da, Geodibertsitatearen gaia ingurumen-hezkuntzarako politika eta estrategietan sar dadin defendatzeaz gain. Ildo beretik, ikerketa zientifikoaren aldeko apustua egiten da, Euskadiko geodibertsitatearen ezagutza zabaltzeko tresna gisa.

Dokumentu interesgarria da, halaber, **Garapen Iraunkorraren arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Hezkuntza Plana Urdaibaiko Biosfera Erreserban (PICE-IGHP) 2015-2025.**

PICE-IGPHren Ekintza Planak, berez tresna multzo bategi, erantzuna eman nahi dio, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren alorrari aplikatuta, Urdaibaiko Biosfera Erreserban (UBE) lehenago egindako diagnostikoak agerian jarritako egoerari.



Planaren helburuak eta ekintzak balio hauek ardatz harturik zehaztuz joan dira, baliook Planaren beraren muina izateagatik, hain zuzen ere:

- Gaiarekin zerikusia duten eragile guztien parte-hartzea.
- Dagoeneko lanean diharduten eragileen elkarlana, haien koordinazioa eta arlo guztietako lankidetzaren sustatzea.

- Praktikotasuna, gauzaperen zuzeneko ekintza zehatzen bitartez.
- Koherentzia UNESCOk planteatutako estrategiaekin.

Aurrekoaren fruitu, Plana 6 programaren inguruan egituratuta dago, eta programa horietan definitutako helburu nagusiak ekintza guztien iturria dira:

GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO, IKERKETA, GAIKUNTZA ETA HEZKUNTZA PLANA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAN (PICE-IGHP) 2015-2025	
Programa	Helburu nagusia
Koordinazio eta Lankidetzarako Programa	Garapen iraunkorrerako interpretazioan, ikerketan, gaikuntzan zein hezkuntzan diharduten eragileen koordinazioa eta lankidetzaren lortzea, arloka eta arlo guztien artean, elkarrekin UBEren garapen iraunkorrerantz aurrera egin dezaten.
Informazio eta Komunikaziorako Programa	Informazio-jario eraginkorra lortzea tokiko biztanleengana zein bisitariengana, bai UBERi buruz bai bertako jardueri dagokienez (garapen iraunkorrerako interpretazioa, ikerketa, gaikuntza eta hezkuntza eta turismoa).
Dibulgazio eta Interpretaziorako Programa	UBEko balioen eta aukeren ezagutza zabaltzea herritar guztiengana eta, batez ere, bertako biztanleengana.
Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Programa: hezkuntza formala eta ez-formala	Erreserba erreferentziatzko ikaskuntza, berrikuntza eta esperimentaziorako toki bilakatzea garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, komunitate osoaren parte-hartze eta inplikazioarekin
Iraunkortasunerako Prestakuntza-Gaikuntza, Parte-hartze eta Ekintza Programa	Eskuragarri jartzea, UBEko komunitateari, arlo guztietan (ingurumena, ekonomia, kultura, gizartea) inguruaren garapen iraunkorrerantz jotzeko beharrezkoak diren prestakuntza eta gaikuntza.
Ikerketa Zientifikorako Programa	Ikerketa-jarduera koordinatzea eta UEBren kudeaketa eta garapen iraunkorrek bateragarri egitea.

Euskara Sustatzeko 2012-2022 aldirako Ekintza Planean hezkuntza-alorreko zenbait ekintza aurreikusitak dira familia bidezko transmisioaren alde etengabe sentsibilizatzeko eta motibatuzeko.

Euskalduntze eta alfabetatzeari dagokionez, euskararen erabilera eta trebakuntza uztartu nahi dira ikasgelatik kanpoko ekintzen bidez, euskara etorkinengana hurreratzeko programak garatzeaz gain.

Administrazio publikoetako pertsonalaren kasuan, beharrezkoak diren prestakuntza eta laguntzak aurreikusten

dira euskara lantokiko hizkuntza ere izan dadin eta gehiago erabil dadin, halaber, kanpoarekiko harremanetan.

Biztanle gehienak elebidunak diren eremu geografikoetan euskara hizkuntza funtzional nagusia izatea ahalbidetu nahi da. Helburu horietarako neurrien artean ekintza zehatzak deskribatzen dira; adibidez, haur zein gazteentzat antolatzen diren eskolaz kanpoko jarduerak euskarazkoak izatea, eskaintza benetan zabala lortzea eta hezkuntza-komunitateak ez ezik (hezitzaileak, aita-amak, ikasleak) administrazio publikoek ere parte hartzea.

Enpresa-alorrera jota, arreta-zentro bat proposatzen da, informazioarekin batera hizkuntza-politikarako ekimenen eta euskararen aldeko planen berri emateko, enpresetan proiektua abian jartzerakoan ager daitezkeen zalantzetan eta beharretan laguntzeko eta etorkizunean suerta daitezkeen aukerei eta beharrei erantzuteko. Era berean, euskara-planei buruzko ikastaroak planteatzen dira langileentzat eta enpresen arduradunentzat, eta erraztasunak enpresetako langileek euskara ikas dezaten.

Aisiari eta kirolari dagokienez, planak adinekoei zuzendutako aisia- eta prestakuntza-jarduerak antolatzearen ideia darabil. Kiroleko profesionalen kasuan (federazioak, entrenatzaileak, monitorea, irakasleak, prestatzaileak, arbitroak eta zuzendariak), asmoa haien prestakuntza etengabe berrikustea eta hobetzea da. Beste lan-ildo bat etorkinei egokitutako aisia-programak antolatzea da, kolektiboaren gizarteratzea ahalik eta handiena eta aberasgarria izan dadin.

Hizkuntza erabiltzearen garrantziaz ohartarazteko kanpainak egitea ikastetxeetan, erakunde ofizialetan, hedabideetan... eta material didaktikoak eta jokoak sortzea helburu berarekin.

Gizarte-politikan, **2012-2016 aldirako Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planaren** helburu behinene-tako bat da gizarte-heziketako zerbitzu eta laguntza sendoagoak eskaintzea gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen. Zehazki, enplegua baliatu nahi du gizarteratzerako bide gisa, egoera estuenean daudenei informazioa eta prestakuntza-ekintzak eskainiz bazterketa eta aniztasunaren gaietan. Planean beharrezkoa ikusten da, bestalde, lanbide-heziketarako informazio-, aholkularitza- eta orientabide-sistema integratu bat, eta orobat, pobrezia eta bazterketari buruzko informazio- eta aholkularitza-ekintzak enpresetako hautapen-zerbitzuen arduradunentzat.

Bultzatu nahi da, bestetik, bizi bitarteko hezkuntza, gizarteratzea errazteko eta eskola-uztea murrizteko tresna gisa. Helburuetako bat da, halaber, babes-sistema guztietako gizarteratze-alorrean diharduten profesionalen sentsibilizazioa eta prestakuntza hobetzea eta jarduteko estrategia berriei egokitzeko gaitzea.

Azpimarratzen da, azkenik, lankidetzan jardun beharra euskal gizarteak beste era batez hauteman ditzan bazterketa-egoeran nahiz horren arriskuan daudenek dituzten beharrak eta aukerak eta egiten duten ekarpena ere, soziala zein lanaren bidezkoa. Horretarako, bazterketa-egoeran nahiz horren arriskuan dauden pertsonen asoziazionismoa bultzatu nahi da, eta za-

balkunde-, informazio-, sentsibilizazio- eta aholkularitza-ekintzak antolatu familientzat hainbat gairen inguruan, hala nola gizarteratze aktiboa eta bizimodu independentea, generoa, erantzunkidetzeta eta familia-ereduak, mendekotasun-egoeran daudenen zaintza eta baliabide erabilgarriak.

2013-2020 aldirako Euskadiko Osasun Planarekin prebentzio- eta sentsibilizazio-planak garatu nahi dira herritar guztientzat, eta azpimarratu, gazteen eta familien kasuan, ohitura osasungarriak, aisia aktiboa, nutrizio-hezkuntza, mendekotasunen prebentzio orokorra, genero-berdintasunean eta desberdintasun sexualaren onarpenean oinarritutako hezkuntza afektibo-sexuala, eta indarkeriaren aurkako hezkuntza, bereziki generoko eta berdinkideen indarkeriaren kontra.

Gaixotasun, mendekotasun edo desgaitasunen bat dutenei dagokienez, prestakuntza, kontsultetarako irispidea eta bestelako estrategiak eta mekanismoak garatu nahi dira pertsona horien artapenak zaintzaile informalengan duen inpaktua ahalik eta gehien arintzeko, zaintzaileen, familiarren zein pazienteen prestakuntza eta informazioa bultzatzeaz gain bizimodu osasungarriaren inguruan, adinekoei maiztasun jasaten dituzten gaixotasunetaz eta istripuetaz eta desgaitasunen aurrean jokatzeko moduez.

Bestalde, pertsona arteko eta belaunaldi arteko harremanak sustatu nahi dira, batik bat adinekoei begira: asoziazionismoa, bizi bitarteko ikaskuntza eta ahalduzkoa; norbanakoen zaletasunak eta interesak bultzatzea; boluntariotza eta komunitatearentzako zerbitzuetan aritzeko aukerak. Bide beretik, "Hiri Lagunkoia Adineko Pertsonekin" programa garatzearen aldeko apustua egiten da.

Planaren beste helburu bat da ingurumenari buruzko informazioaren kalitatea hobetzea, herritarrek informazio hori eskuragarria izatea, eta ohitura osasungarriak (jarduera fisikoa, elikadura osasungarria, mendekotasunen prebentzioa) sustatzea lanlekuan.

Akuilu bat da ikerketa eta berrikuntzaren aldeko mekanismoak garatu eta finkatzeko osasunaren alorrean: prestakuntza, berrikuntza eta sorkuntzarako guneak, ezagutza-sareak eta abar.

Osasun-langileen prestakuntzari dagokionez, bete beharreko eginkizuntzat jotzen dira generoaren ikuspegia prestakuntza-programa guztietan txertatzea, lanerako trebetasunak gaikuntza profesionalaren bidez eta rol berriak garatu hobetzea, segurtasunaren kultura sustatzeko, elikadura-osasuneko ezagutzak handitzeko eta jarduera fisikoa bultzatzeko.

LURRALDE HISTORIKOAN

Ingurumenaren ikuspegitik, **Bizkairako Energia Iraunkorreko Estrategia 2020** izenekoan lehen ardatz-estrategikotzat aurkezten da bizkaitarrak ohartu daitezen zer ondorio dituen energiaren kontsumoak tokiko zein maila globaleko ingurumenean, prest ager daitezen energia-kontsumoko ohitura arduratsuetara aldatzeko eta horrela inpaktua gutxiagotzeko, eta ohitua berrien arabera jokatzeko aukera izan dezaten. Horretarako, Estrategian heziketa-ekintzak eta -ekimenak (energia eta ingurumenerako hezkuntza) zuzentzen zaizkie gizarteko talde guztiei, eta bereziki gazteei, epe ertain eta luzera duten aldaketa-ahalmenagatik. Ekintza horietako bat energia IHE 2015-2020 honetako gai ardatzetako bat izatea da, eta Berraktibatuz + proiektua ekimen berritzailetako bat.

Beste lerro estrategiko bat foru-administrazioak eredugarri jokatzea da, barneko energia-kontsumoaren irizpide arduratsuak ezarri eta behar diren tresnak martxan jarri bai industria-sektoreak baita zerbitzuak (udalak eta Lurraldeko beste erakunde publiko batzuk barne), bizitegi-zerbitzuak eta lehen sektoreak ere energia gutxiago kontsumi dezaten, jokaerak alda ditzaten eta, ahal den neurrian, iturri berriztagarrietako energia erabil dezaten.

Azkenik, Bizkaia lurralde adimentsu bihurtu dadin lortu nahi da; horrelako lurralde batek bere nortasunaren erakusgarri du energia baliatzeko era, eta bertako industria-sektorea, oro har, eta energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoarena bereziki, lehiakorragoak dira energia zentzuz erabiliz eta martxan dagoen iraultza energetikoari helduz negozio berriak azalarazteko eta merkatu gehiagotara zabaltzeko.

